

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN EUSKARAREN
ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN
V. PLANGINTZALDIA**

2013ko uztaila

AURKIBIDEA

0. SARRERA

1. IV. PLANGINTZALDIAREN BALANTZEA

1.1. LANPOSTUAK ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

1.1.1. Lanpostuak eta hizkuntza eskakizunen betetze maila

1.1.2. Derrigortasun gabeko lanpostuen egoera

1.1.3. Hizkuntza eskakizunen betetze maila sailez sail

1.2. PERTSONALAREN HIZKUNTZA TREBAKUNTZA

1.2.1. Hizkuntza trebakuntzarako ikastaroak

1.3. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLANA

1.3.1. Xedea, jarduerak eta saioak

1.3.2. Modulu presentziala

1.3.2.1. Parte-hartzeari buruzko datuak

1.3.3. On Line ikastaroak

1.3.3.1. Parte-hartzeari buruzko datuak

1.3.4. EraMiak

1.3.5. Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren balorazioa

1.4. IV. PLANGINTZALDIAREN BALORAZIOAREN ONDORIOZ EGITEN DIREN PROPOSAMENAK

2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO V. PLANGINTZALDIKO EGITASMOA (2013-2017)

2.1. ZENBAIT GOGOETA

2.1.1. IV. Plangintzaldiaren balantzeko datuei buruzko zenbait gogoeta

2.1.2. Langileen adinaren eta borondatearen aldagaiak

2.1.3. Administrazioaren egitura organikoa eta horren eragina

2.2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EGITASMOAK

2.2.1. Administrazio elebidunerantz

2.2.2. Egitasmoaren eragin-esparrua

2.2.3. Egitasmoaren indarraldia

2.2.4. Egitasmoaren helburu nagusiak

2.2.5. Egitasmoaren helburuak lortzeko egitura eta bideak

2.2.5.1. Jendaurreko atalak eta zerbitzu-hizkuntza

2.2.5.2. Erabilera sustatzeko mikroplanak (EraMi): euskara lan-hizkuntza moduan erabiltzeko tresna

2.2.5.3. Euskaraz lan egin ahal izateko bestelako baliabideak

- 2.3. MOTIBAZIOA ETA GIZARTE ESKAERA SUSTATU BEHARRA
 - 2.3.1. Erakundeko pertsonalaren motibazioa sustatu
 - 2.3.1.1. Erabilerarako mikroplanetako partaideen errekonozimendua
 - 2.3.2. Gizarte eskaera sustatu
 - 2.3.2.1. Gizarte eskaera sustatzeko zenbait gomendio
- 2.4. HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO BATZORDE NAGUSIA
- 3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK
 - 3.1. ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNEN DEFINIZIOA ETA SAILKAPENA
 - 3.2. ADMINISTRAZIO-ATALAK ETA ATALEN IZAERA
- 4. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ALDATZEKO ETA DERRIGORTASUN DATA BERRIAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA
 - 4.1. Hizkuntza-eskakizunen aldaketa
 - 4.2. Derrigortasun data berriak esleitzeko proposamena
 - 4.2.1. Derrigortasun data berriak esleitzeko irizpideak
 - 4.2.2. Derrigortasun data berriak Aldundiko administrazio atal elebidunetan, sailez sail
- 5. HIZKUNTZA TREBAKUNTZAKO PLANA
 - 5.1. HIZKUNTZA GAITASUNA LORTZEKO JARDUERA EGITASMOA
 - 5.1.1. Xedea
 - 5.1.2. Nori zuzenduta dago plan hau?
 - 5.2. IKASTAROEN ESKAINTZA OROKORRA
 - 5.2.1. Ikasturte osoko ikastaroak
 - 5.2.2. Udako ikastaroak
 - 5.3. SU ITZALTZE ETA SALBAMENDU ZERBITZURAKO ETA BESTE KOLEKTIBO BATZUETARAKO IKASTAROEN ESKAINTZA OROKORRA
 - 5.3.1. Hartzaileak
 - 5.3.2. Ikasturte osoko ikastaroak
 - 5.3.3. Udako ikastaroak
 - 5.4. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO JARDUERA EGITASMOA
 - 5.4.1. EraMia
 - 5.4.2. Administrazio-ataleko modulua
 - 5.4.3. Modulu presentziala
 - 5.4.4. On Line modulua

0. SARRERA

Ohikoa bihurtu da Euskal Administrazioan lau urtero, gutxi gorabehera, erakundeen euskararen erabilera normalizatzeko planak diseinatu eta onetsi behar izatea. 2013. urtea suertatu da, hain zuzen ere, V. Plangintzaldiari (2013-2017) hasiera emateko urtea, eta Eusko Jaurlaritzaren 86/1997 Dekretuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean euskal herri-administrazioek euskara normalizatzeko planak onartu behar dituzte.

Beraz, paper zuri baten aurrean jartzen garenean plan berria zirriborrazeko (planak, euskararenak barne, paperean diseinatzen dira eta paperak gauza politak, desioak eta mirari bat edo beste ere onartzen du) ezin dugu ahaztu ez garela hutsetik abiatzen eta, dagoeneko, ibilbide bat egina dagoela, diseinatuko duguna V. Plangintzaldia izango baita.

V. Plangintzaldiaren erronka nagusia, hizkuntzaren ezagutzarena alboratu gabe, **erabilera** izango da, IV. Plangintzaldian bezala, baina modu indartsuagoan. Bizkaiko Foru Aldundian euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko planek 25 urte bete dituzte, eta, beraz, dagoeneko behar den besteko masa kritikoa dago administrazio elebiduna lortzeko erronkari aurre egiteko, betiere, zergadunen eskaera eta foru-langileen borondatea oinarri hartuta.

1. IV. PLANGINTZALDIAREN BALANTZEA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren V. Plangintzaldiari ekin aurretik, on litzateke, labur bada ere, IV. Plangintzaldia Bizkaiko Foru Aldundian zer izan den eta nola burutu den gainbegiratzea.

2009ko urtarrilaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Gobernu Kontseiluaren 2008ko abenduaren 30eko Erabakia argitaratzearekin batera eman zitzaion hasiera IV. Plangintzaldiari Bizkaiko Foru Aldundian.

1.1. LANPOSTUAK ETA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

1.1.1. Lanpostuak eta hizkuntza eskakizunen betetze maila

Hurrengo laukian ikus daitekeenez, Plangintzaldiaren amaieran, 2013ko urtarrilaren 1ean ezarritako gutxieneko derrigortasun indizea (%42,85) 20 puntutan gainditu da (**%62,44**).

Era berean, EAEn derrigortasun data duten lanpostuen (%54,5) batez bestekoaren ehunekoa 8 puntutan gainditu da.

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNEKOETAN %
Lanpostuak	3174	100,00
Derrigortasun-data duten lanpostuak	1982	62,44
Betetzailea dutenak	1846	
Lanpostu hutsak	136	
Derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak	1192	37,56

Datu nagusi horren barruan beste datu bati ere begiratu behar diogu, derrigortasun-data indarrean duten lanpostuen **hizkuntza eskakizunen egiaztatze mailari**, hain zuzen ere:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNEKOETAN %
Derrigortasun-data duten lanpostuak	1982	100,00
Betetzailea dutenak	1846	93,14
Egiaztatu dute	1505	81,53
Ez dute egiaztatu	284	
Salbuetsita	57	
Lanpostu hutsak	136	6,86

Derrigortasun-data duten lanpostuen betetzaileen ia **%82k** egiaztatu dute hizkuntza eskakizuna. EAeko datuekin alderatuta, derrigortasun data duten lanpostuen hizkuntza eskakizunen betetze mailaren ehuneko bera daukagu.

Hartzen baditugu hizkuntz eskakizuna, dagoeneko, egiaztatu dutenak gehi hutsik dauden lanpostuak alde batetik, eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenak gehi salbuetsitakoak bestetik, hau izango dugu:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-data duten lanpostuak	1982	100,00
Egiaztatu dutenak + lanpostu hutsak	1505+ 136 = 1641	82,79
Ez dute egiaztatu + salbuetsita	284 + 57 = 341	17,21

Beraz, betetze maila oso altua da, hau da, derrigortasun-data indarrean duten lanpostuen betetzailen **%82,79k** egiaztatu dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna. Egia da lanpostuen %6,86 (136) bete gabe dagoela, baina lanpostu horiek beteko diren neurrian, hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenekin beteko dira.

Urrats bat beherago jaitsiz gero eta lanpostuen betetzailen egoera aztertzen badugu, honako hau ikus dezakegu:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Betetzaila dutenak	1846	100,00
HE egiaztatu dutenak	1505	81,53
- Titular betetzaila	1197	
- Titulartasunik gabeko betetzailak	308	
Ez dute HE egiaztatu	284	15,38
- Titular-betetzaila	230	
- Egiaztaturiko HE: 1 txikiagoa	83	
- Egiaztaturiko HE: 2 txikiagoa	25	
- Hizkuntza eskakizunik ez	122	
- Titulartasunik gabeko betetzailak	54	
- Egiaztaturiko HE: 1 txikiagoa	6	
- Egiaztaturiko HE: 2 txikiagoa	5	
- Hizkuntza eskakizunik ez	43	
Salbuetsita	57	3,09

Lauki honen irakurketatik, hiru gauza azpimarratu nahi ditugu:

- Oso altua da hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen artean lanpostuen titularren ehunekoak. Lanpostua betetzen duten titularren artean (1197 + 230 = 1427), HEren betetze-maila %84 (1197) da.

- Bestalde, nahiko baxua da titular gabeko betetzaileen artean ($308+54 = 362$) hizkuntz eskakizuna egiaztatu ez dutenen ehunekoa, %11,88 (43). Horrek esan nahi du lanpostu hutsak ez direla betetzen hizkuntz eskakizunaren betekizuna betetzen ez duten pertsonekin. Hala ere, uneoro lan-politsetan hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen pertsonarik ez dagoenez, behin-behinekotasunez hizkuntza eskakizuna ez betetzeko salbuespen egoerak onartu behar izaten dira.

Dena den, datu hauen adierazgarritasuna hobeto ulertzeko, aurreko plangintzaldikoekin erkatzea litzateke egokien.

LANPOSTUAK	GUZTIRA			EHUNekoETAN %		
	II. Plangintzaldia	III. Plangintzaldia	IV. Plangintzaldia	II. Plangintzaldia	III. Plangintzaldia	IV. Plangintzaldia
Betetzalea dutenak	878	1485	1846	100	100	100
HE egiaztatu dutenak	658	1199	1505	74,94	80,74	81,53
- Titular betetzalea	553	940	1197			
- Betetzalea bai titularrik ez	105	259	308			
Ez dute HE egiaztatu	172	213	284	19,58	14,34	15,38
- Titular-betetzalea	124	166	230			
- Egiaztaturiko H.E.: 1 txikiagoa	38	44	83			
- Egiaztaturiko H.E.: 2 txikiagoa	6	14	25			
- Hizkuntza eskakizunik ez	80	108	122			
- Titulartasunik gabeko betetzaleak	48	47	54			
- Egiaztaturiko H.E.: 1 txikiagoa	6	14	6			
- Egiaztaturiko H.E.: 2 txikiagoa	4	3	5			
- Hizkuntza eskakizunik ez	38	30	43			
Salbuetsita	48	73	57	5,46	4,92	3,09

Hiru plangintzaldien arteko erkaketa taula honetatik hau ondoriozta dezakegu:

- II. Plangintzaldiaren amaieratik (2002) IV. Plangintzaldiaren amaierara (2012), hau da, 10 urtean, bikoiztu egin da lanpostuaren hizkuntz eskakizuna egiaztatu duen langileen kopurua, 658tik 1505era.
- Beste datu garrantzitsu bat da, lanpostuan derrigortasun-data izanik, betetzaileren artean hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenen ehunekoa jaitsi egin dela, IV. Plangintzaldiaren amaieran %15,38koa soilik delarik.
- Azpimarratzekoa da Aldundiak egin duen ahalegina erakundeko langileei hizkuntza prestakuntza emateko eta lanpostu hutsetan hizkuntza eskakizunaren betekizuna betetzeko. Hala ere, uneoro lan-poltsetan hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen pertsonarik ez dagoenez, behin-behinekotasunez hizkuntza eskakizuna ez betetzeko salbuespen egoerak onartu behar izaten dira, lanpostua hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileekin bete arte.

Hau garrantzitsua da, besteak beste, legea bere osotasunean bete ahal izateko. Funtzio Publikoko legeak xedatzen duenaren arabera, lanpostua beteko duen langileak, bitartekotasunez bada ere, lanpostuaren hizkuntz eskakizuna egiaztatuta izan behar du. Baina, batez ere, zenbait atal elebidunetan euskara zerbitzu hizkuntza eta gutxi batzuetan bada ere, lan hizkuntza izatea ere ahalbidetu duelako. Dena den, uneoro lan-poltsetan baja edo bestelako hutsunerik betetzeko hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen pertsonarik ez dagoenez, premiaren premiaz eta baja egoera bideratu edo lanpostua behin betiko bete bitartean, Aldundiak eman behar duen zerbitzuak ahalik eta kalterik gutxien jasan dezan, behin-behinekotasunez hizkuntza eskakizuna ez betetzeko salbuespen egoerak onartu behar izaten dira.

1.1.2. Derrigortasun gabeko lanpostuen egoera

Derrigortasun-data esleituta daukaten lanpostuen egoeraren azterketa egin ondoren, begirada bat egin behar diogu hizkuntza eskakizunaren derrigortasunik ez duten lanpostuen egoerari. Hona hemen laukia:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak	1192	100,00
Betetzailerak dutenak HE egiaztatu dutenak - Titular betetzailerak - Titulartasunik gabeko betetzailerak	1073 336 272 64	90,02
Lanpostu hutsak	119	9,98

Hau da, 336 foru langile gehiagok betetzen dute lanpostuak esleituta daukan hizkuntza eskakizuna, nahiz eta derrigorrezkoa ez izan.

Beraz, hurrengo laukian biltzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren datu orokorrak.

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Lanpostuak	3134	100,00
Egiaztatu dutenak guztira+ lanpostu hutsak derrigortasun datarekin	1505 + 336 + 136 = 1977	62,28

Ondorio gisa nabarmendu daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren langileria ia bi herenek (**%62,28**) egiaztatu dutela bere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna.

1.1.3 Hizkuntza eskakizunen betetze maila, sailez sail

Sail guztiek ez dute hizkuntza-egoera berdina, ez hizkuntza eskakizunen derrigortasunaren aldetik ezta pertsonalaren hizkuntza-ezagutzaren aldetik. Hori neurri handi batean sail bakoitzaren izaeratik ematen da. Gizarte izaera handia dutenek — Gizarte Ekintza Sailak, adibidez—, betetzen duten funtzio motarengatik, lanpostuen ehuneko handia izango dute hizkuntza eskakizunen derrigortasunarekin.

Bi sail kenduta (Ahaldun Nagusiaren Kabinetea kontuan izan gabe), gainerakoek Aldundiaren batez bestekoa gainditzen dute (%62,28) hizkuntza eskakizuna betetzeari dagokionez.

Hurrengo laukiak argi erakusten du egoera hori.

Sailak	Lanpostuak			Hizkuntz eskakizunaren betetze maila	
	Guztira	Derrigortasun-datekin	% lanpostuen gainean	Egiatzatu dutenak guztira + lanpostu hutsak	% lanpostuen gainean
01 Ahaldun Nagusiaren Kabinetea	5	2	40,00	1	50,00
02 Nekazaritza	286	180	62,94	180	62,94
03 Gizarte Ekintza	400	360	90,00	324	81,00
04 Kultura	211	158	74,88	147	69,66
05 Ogasun eta Finantza	1066	648	60,79	567	53,18
06 Herri Lanak	266	98	36,84	114	42,85
07 Lehendakaritza	755	393	52,05	510	67,54
08 Ekonomi Sustapena	101	82	81,19	76	75,24
09 Ingurumena	84	61	72,627	58	69,04
Bizkaiko Foru Aldundia	3174	1982	62,44	1977	62,28

1.2. PERTSONALAREN HIZKUNTZA TREBAKUNTZA

Foru langileen hizkuntza-treba-kuntza gauzatu ahal izateko, 2008-2012ko Jarduera Egitasmoa onartu zen. Plan horretan bi tresna nagusi aurreikusten dira helburuak lortzeko. Batetik, ikastaro motak zehazten dira trinkotasunen arabera, eta langileak ikastaroetara joan ahal izateko baldintzak arautzen dira. Baita ere, langileek beren hizkuntza-treba-kuntzarako izango duten ordu-kredituen taula zehazten da. Bestetik, beste tresna bat finkatzen da: Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana bi modulutan banatuta, gehienbat, atal elebidunei zuzenduta.

1.2.1. Hizkuntza treba-kuntzarako ikastaroak

Bizkaiko Foru Aldundiko pertsonal guztiari zuzentzen zaio Jarduera Egitasmoa. Beraz, langile guztiak daukate hizkuntza-treba-kuntzako ikastaroak egiteko aukera Planaren barruan. Hala ere, Aldundiko langile guztiak ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta horren ondorioz aukerak eta lehentasunak ezberdinak izan behar dira, langile bakoitzak ezarria duen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datarekiko egoeraren arabera.

Ondoko laukian, Jarduera Egitasmoaren barruan burutu diren ikastaroetara joan diren langileen matrikula kopurua eta eman dituzten ordu-kopuruak jasotzen dira, ikasturtez ikasturte, ikastaro motak zehazturik.

JARDUERA EGITASMOAREN BARRUKO MATRIKULAZIO ZENBAKIAK

Ikastaro mota	2008-09 ikast.		2009-10 ikast.		2010-11 ikast.		2011-12 ikast.	
	Matrikulak	Orduak	Matrikulak	Orduak	Matrikulak	Orduak	Matrikulak	Orduak
Trinkoa	35	15005	42	18190	57	24275	87	36780
2 ordu, lanorduetan	52	15392	57	16758	65	19240	52	15184
2 ordu, lanorduz kanpo.	29	9570	44	17740	24	7920	27	8910
GUZTIRA.....	116	39967	143	67888	146	51435	166	60874

Pertsona barik matrikulen kontzeptua erabili da, adierazgarriago baita, pertsona batzuek matrikula bat baino gehiago egiten dutela kontuan harturik; ikastaro trinkoetan, esate baterako, lau hilabeteko iraupena dutenez, pertsona batek bi matrikula egin ditu ikasturte berean.

JARDUERA EGITASMOAREN BARRUAN EGIAZTATURIKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

	2008 – 2009 IKASTURTEA	2009 – 2010 IKASTURTEA	2010 – 2011 IKASTURTEA	2011 - 2012 IKASTURTEA	GUZTIRA
1. HE	26	14	13	23	76
2. HE	36	21	32	19	108
3. HE	25	30	44	19	118
4. HE	0	0	3	1	4
GUZTIRA	87	65	92	62	306

Oharra: Datu hauetan Bizkaiko Foru Aldundiko, GUFEn eta LAEko langileak sartuta daude; Aldundiko deialdiak bere erakunde autonomiadunentzako ere badira.

Horrek esan nahi du, IV. Plangintzaldian, Hizkuntz Normalizazio Atalak urtero egiten dituen deialdietan 306 pertsonak egiaztatu dutela hizkuntz eskakizunen bat.

1.3. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLANA

1.3.1. Xedea, jarduerak eta saioak

Bizkaiko Foru Aldundiak langileek euskara ikasteko lehenengo plana egin zuenetik 25 urte baino gehiago pasatu dira. Helburuak eta datuak ikusita, plana arrakastatsua izan dela esan daiteke. Baina hizkuntza jakiteak ez zekarrela berez hizkuntza hori erabiltzea konturaturik, geroago, Bizkaiko Foru Aldundiak euskararen erabilera bultzatzeko plana diseinatzea erabaki zuen.

Plana beharrezkoa zen, euskara dakiten guztiek ez baitute erabiltzen, hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila den aldetik. Azken finean, plana beharrezkoa zen, euskara erabili nahi izatetik erabiltzera, erabiltzeko konpromisoa hartzetik konpromisoa betetzera jauzi kualitatibo handiegia dagoelako langileen esku bakarrik uzteko.

Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak, 25 urte hauetan, hiru jardueraz diseinatu ditu, euskararen erabilera apurka-apurka normalizatuz joateko:

- Modulu presentzialak
- On Line modulua
- EraMiak

Ordutik hona, euskara landu eta lanean erabiltzen duten langileen kopurua nabarmen hazi da, duela 25 urte euskararen presentzia ez baitzen ia igartzen.

Euskararen egoeraren aldaketa horrek eragin du zenbait esparru administratibotan euskararen erabilera normalizatuz joatea lan eta zerbitzu hizkuntza moduan, eta baita harreman hizkuntza moduan ere.

1.3.2. Modulu presentziala

Astean taldeko bi saio egiten dira, bakoitza ordu eta erdikoa, sail bereko langileentzat. Saio horietan, zenbait hizkuntz jarduera egiten dira.

1.3.2.1. Parte-hartzeari buruzko datuak

2008-2012 plangintzaldiko (2013. urtea ere sartu da) parte-hartzeari buruzko datuen grafikoan ikus daitekeenez, planean parte hartzeko eskabide kopuruak gora egin du etengabe 2010-2011. ikasturtera arte.


2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetako eskabide kopurua grafikoan agertzen dena baino handiagoa izan zen.

300

200

100

0



	Ahaldun Nagusiar en	Nekazaritza	Gizarte Ekintza	Kultura	Ogasun eta Finantza	Herri Lanak	U. H. eta H. Administr	Ekonomi Sustapena	Ingurumena	Garraio eta Hirigintza	Nahasiak	GUZTIRA
■ 2008-2009	4	9	47	6	67	12	0	9	0	0	14	173
□ 2009-2010	8	10	64	7	72	7	0	0	0	7	28	203
■ 2010-2011	9	12	39	12	89	17	15	5	7	12	22	238
□ 2011-2012	0	9	58	16	81	18	41	7	9	0	1	240
■ 2012-2013	0	6	34	5	40	11	28	5	3	0	1	133

Gertaera hori bi arrazoi direla bide azaltzen da:

- Euskararen erabilera sustatzean eraginkorragoak izateko, 2011-2012 ikasturtetik aurrera, talde presentzialetan parte hartzea mugatu zen: 2010-2011 ikasturtean talde horietan parte ez zuten langileek ezin zuten hurrengo ikasturteetan parte hartu. Langile horiei “Administrazio Hizkera 1.0 On Line” moduluan parte hartzeko aukera eskaini zitzaien.
2012-2013 ikasturtean, “Administrazio Hizkera 2.0 On Line” ere eskaini zen.
2011-2012 ikasturtean, 1.0 On Line moduluan 27 langilek parte hartu zuten.
2012-2013 ikasturtean, 1.0 On Line moduluan 60 langilek eta 2.0 On Line moduluan 6 langilek parte hartu zuten.
- Modulu presentzialetan izena emateko aukera zuten beste langile batzuek izenik ez ematea erabaki zuten, ordutegia ondo ez zetorkielako edo lan zamarengatik.

Modulu presentzialetan, asistentzia aldetik, datuak ez dira espero bezain onak izan.

Saioetara ez joateko arrazoi batzuk hauek dira:

- ordutegia
- lan zama
- lan bilerak
- lanpostu aldaketa
- lanbide hobekuntzarako ikastaroak
- aukerako ikastaroak
- norberaren aukerako egunak hartzea
- opor egunak hartzea
- gaixotasuna
- ...

Saio presentzialetan etengabe huts egiteak jardueren garapenean eta euskararen erabileran eragin txarra du.

1.3.3. On Line ikastaroak

Ikastaro hauen bidez, administrazioko langileak sentsibilizatu nahi dira administrazio-hizkeran aldaketa egin beharraz, hizkera hori ulergarriagoa izan dadin. Era berean, administrazioko langileei laguntza eman nahi zaie administrazio-idazkiak argi, zehatz eta zuzen idatz ditzaten.

1.3.3.1. Parte-hartzeari buruzko datuak

2011-2012 ikasturtea: 27 langile.

2012-2013 ikasturtea: 75 langile.

1.3.4. EraMiak

2008-2009 ikasturtetik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundian lau EraMi antolatu dira.

Erosketa eta Hornidura Atala.

2008-2009 ikasturtean, Bizkaiko Foru Aldundiko lehen EraMia antolatu zen, Lehendakaritza Saileko Erosketa eta Hornidura Atalean. Atal txikia zen (bost langile), eta ataleko buruak eta langileek lanpostuko HE egiaztatuta eta euskaraz lan egiteko gogoaz zuten. Langile guztiekin adostutako EraMiaren helburua zen apurka-apurka, lan bilerak, langileen arteko ahozko eta idatzizko lan harremanak eta beste administrazio-unitate batzuekiko lan harremanak euskaraz garatu ahal izatea.

2009-2010 ikasturtean, EraMi honen emaitzak egokiak izan ziren hizkuntza autonomiaren ikuspuntutik, eta eskertzekoa izan zen langileek hizkuntza erronkaren aurrean erakutsitako ilusioa.

2010-2011 ikasturtean, atal honen hizkuntza egoera asko aldatu zen. Trebatzailearen protagonismoak pisua galdu zuen. Langileak gero eta seguruago eta erosoago sentitzen ziren euskaraz; egunetik egunera euskal hizkuntzaren arlo gehiago kontrolatzen zituzten.

2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetan, aurreko ikasturteetako dinamikarekin jarraitu genuen: trebatzaileak lan bileretan parte hartu zuen, gramatika zuzentasuna eta langileen komunikatzeko gaitasuna hobetzeko, hori baita euskara erabiliz eroso sentitzeko modu bakarra.

Gaur egun, esan daiteke atal horretan euskararen erabilera normalizatu egin dela lan esparruan, langileak euskaraz autonomia osoz lan egiteko gai baitira. Hori dela eta, atal honetan EraMia bukatutzat eman dugu.

Erregistro eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Atala.

2010-2011 ikasturtean, Erregistro eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Atalean EraMi bat antolatu zen. Ataleko buruak eta langile gehienek lanpostuaren HE egiaztatuta zuten eta euskaraz ere lan egiteko beharra sentitzen zuten. Adostutako planean, lan bilerak eta langileen arteko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz bideratzea erabaki zen. Aldundiko gainerako langileekiko harremanetan euskarari lehentasuna ematea proposatu zen, betiere, harreman eroso eta komunikazio egokirako oztipoa ez bazen. Herritarrekiko harremanetan euskarari lehentasuna

ematea proposatu zen, baina beti herritarrek hautatutako hizkuntza errespetatuz eta egoerak behartu gabe.

Langileren baten benetako euskara maila behar den moduan komunikatzeko besteko egokia ez zenez eta erabiltzaileekiko ohiko harremanak batez ere gaztelaniaz izaten direnez, banakako eta taldeko saioak antolatu ziren, maila egokia lortu ahal izateko.

Egoera horretan, 2010-2011 ikasturteko emaitzak onargarriak izan ziren, mostradoreko eta telefonoko esku-hartzeen %10 euskaraz egin baitziren.

2011-2012 ikasturteari begira, oztopo nagusiak izan ziren langile batzuek gaztelania erabiltzeko zuten joera eta atal horretako langileen joan-etorri handia. Kontuan izan behar da lana beti gaztelaniaz egiten zutela, eta borondate ona izan arren, oso zaila dela aldaketak barneratzea. Horrez gain, bi langilek erretiroa hartu zuten eta bi langile berri hasi zirenez, proiektua berriro azaldu behar izan zen eta langile berriek helburuak haien gain hartu zituzten ahalegindu behar zen. Egoera horren aurrean, euskararen erabilera sustatzeko erabakiari irimo eutsi zioten.

2012-2013 ikasturtean, aurreko ikasturtearekin alderatuta, egoera ez da hobetu. Paradoxa dirudien arren, ahalegin handia egin eta herritarrenganako laguntza bideratzeko bulegoan erabiltzaileei euskaraz egitea lortu den arren, langile batzuek lan harremanetan eta harreman pertsonaletan gaztelania erabiltzeko joera handia dute. Batzuek euskara maila egokiagoa eta euskara erabiltzeko joera handiagoa dute, baina beste batzuek trebatzailea aurrean dagoenean soilik erabiltzen dute, ez baitaie eroso egiten, batetik, maila egokirik ez dutelako, eta bestetik, erabiltzaileekiko harremanak gehienbat gaztelaniaz izaten direlako. Hiru urte igaro diren arren, arazo hori datorren ikasturtean gainditu beharreko oztopo bat da.

Mendetasunaren Ebaluaziorako eta Orientaziorako Atala.

2010-2011 ikasturtean, Gizarte Ekintza Saileko Mendetasunaren Ebaluaziorako eta Orientaziorako Atalean EraMia martxan jarri genuen.

Atalean 38 langile zeuden, administrariak, medikuak, gizarte langileak, psikologoak, administrazio orokorreko teknikariak... eta euskara maila heterogeneoa zuten. Gaur egun, atalean 45 langile daude.

2010-2011 ikasturtean, zenbait gorabehera direla bide, EraMia ezin izan zen behar den moduan garatu.

- Administrarien kasuan joan-etorri handia egon zen. Hala ere, azpimarratzekoa da administrari berriek EraMian sartzeko agertu zuten borondate ona.

- Administrazio orokorreko teknikarien kasuan, oztopo nagusia euskara maila txikia izan da. Hala ere, langileen gogoak eta EraMiarekiko erakutsitako jarrera positiboak euskara maila orekatzen dute. Beste zailtasun bat izan zen lege-aholkularitzako langile batzuek euskara hutsean bidalitako dokumentuen aurrean erakutsitako jarrera.
- Medikuen eta psikologoaren kasuan, aurreratzea ez da guztiz nabarmena izan lan harremanetan eta lanetik kanpokoetan.
- Gizarte-langileen kasuan, langile batzuek ez zuten EraMian parte hartu nahi, eta beste langile batzuek ez zuten behar den besteko euskara mailarik lana euskaraz egin ahal izateko.

Nabarmenezkoa da zerbitzuko buruak eta ataleko buruak EraMiarekiko erakutsitako jarrera positiboa. Haien parte-hartzea ezinbestekoa eta erabakigarria izan da planak arakasta izateko eta langile batzuen jarrera indartzeko.

2011-2012 ikasturtean, helburu hauek planteatu ziren:

- Telefono bidezko arretarako trebetasunak hobetzea.
- Batzorde teknikoaren bileretan jarioetasuna hobetzea.
- Testu laburrak idazteko gaitasuna hobetzea.
- Harreman pertsonaletan euskararen erabilera hobetu eta handitzea.
- Jarrera batzuk aldatzea.

Hona hemen lortutako helburu batzuk:

- Batzordeen bilerak zein bilera-deia eta bilera-akta euskaraz egiten dira.
- Mezu eta idazki labur asko euskaraz egiten dira.
- Hizkuntza paisaia asko hobetu da.
- Komunikazio bertikal gehiena eta komunikazio horizontalaren zati handi bat euskaraz egiten dira.
- Herritarrek erabili behar dituzten inprimakiak eta dokumentuak elebidunak dira.
- Kanpoko erakundeekiko harremanak euskaraz dira gero eta gehiago.

Aurkitutako zailtasun batzuk.

- Langile batzuek harreman pertsonaletan ez dute euskara erabiltzen.
- Langile batzuek ez dituzte informatikako programak euskaraz jartzen (ARDATZ, Office, Atarileku...).

2012-2013 ikasturterako helburuak:

- Bikain Ziurtagiria lortzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia txertatzea.
- Blog bat sortzea.

2012-2013 ikasturtean, ezarritako helburu asko lortu dira. Bereziki azpimarratu behar dira 2012ko abenduan lortutako Zilarrezko Bikain Ziurtagiria eta *Mendekotasuna*

euskaraz blogaren sorrera. Horrek guztiak motibazio berezia eragin du ataleko langile guztiengan euskararen erabilera bultzatzeko.

Kultura Saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzua eta Aholkuak Emateko eta Arauak Garatzeko Kabinetea.

2012ko maiatzean EraMi bat antolatu genuen Kultura Saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuan eta Aholkuak Emateko eta Arauak Garatzeko Kabineteen. EraMiaren filosofia hasieratik administrazio unitate bakar batera egokitzea izan den arren, kasu honetan, bi unitateak bakar bat balira legez hartzea erabaki genuen, aurretik unitate bakar bat izan ziren eta; horrez gain, lan-harreman estua zuten eta Aholkuak Emateko eta Arauak Garatzeko Kabineteen langile gutxi zeuden.

Gainerako administrazio-ataletan bezala, EraMiaren helburua zen euskararen erabilera lan-esparruan bultzatzea eta langile euskaldunek euskara lan eta zerbitzu hizkuntza moduan erabiltzea, baita harreman hizkuntza moduan ere.

Erregistro eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Atalean antolatutako EraMian bezala, langileen euskara maila heterogeneoa zen. Hori dela eta, atal honetan ere banakako eta taldeko saioak antolatu ziren, behar den besteko maila lortzeko. Horrez gain, langile guztiek Administrazio Hizkera On Line ikastaroetan parte hartzea adostu zen.

Hona hemen EraMi honen inguruan egin dezakegun balorazioa:

Kasu batzuetan aurrerapausoak eman dira, langile batzuek euskara erabiltzen baitute. Baina maila kolektiboan, euskara urrun dago lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza izateatik. Ez da harreman-hizkuntza ere, eta horrek eragin txarra du geroan lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza izateko.

1.3.5. Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren balorazioa

Zorrotzak izanda, baina ez pesimistak, Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren balorazioak zapo gazi-gozoa uzten du.

Aipatutako jarduerak euskararen erabilera sustatzean eragin urria dutenez, euskararen erabilera plana modu logiko eta arrazionalagoan ezartzeko beharra planteatu da, eta horretarako, Administrazio-hizkera 1.0 eta 2.0 on line ikastaroak eta administrazio-ataleko modulua ezarriko dira.

Taldeko jarduerak

Taldeko jarduerak euskaren erabilera sustatzeari egindako ekarpena ez da izan espero zena, baina nabarmentzekoa da jarduera horiei esker parte-hartzaileen ahozko gaitasunari eutsi zaiola eta, gainera, jarduerok parte-hartzaileentzat kohesio osagaia izan direla. Egoera soziolinguistikoarenⁱ, lidergoarenⁱⁱ eta eskariarenⁱⁱⁱ pisua ahaztu gabe, taldeen eta jardueren egituratze eskasa da jarduera horiek erabilera sustatzean izandako eragin urria azaltzen duen arrazoi nagusia taldeen eta jardueren egituratze makurra izan da.

Taldeen eta jardueren egitura:

Jarduerak garatzeko talde homogeenak sortu nahi ziren, bi helbururekin: batetik, harreman-hizkuntza moduan normalean gaztelania erabiltzen duten administrazio-atal bereko euskaldunak biltzea, hizkuntza-ohiturak aldatzen ahalegintzeko; bestetik, administrazio-atal bakoitzeko ahozko eta idatzizko dokumentazioa lantzea, langileei behar den besteko hizkuntza gaitasuna emateko, egoerak hala eskatzen dienean, lana euskaraz garatu ahal izan dezaten. Horrela gertatu da talde bakoitzeko langileak atal edo zerbitzu berekoak izan direnean. Baina:

- talde gehienak heterogeenak izan dira hizkuntza mailari dagokionez, eta, gainera, zenbait zerbitzu edo ataletakoak izan dira. Hau da, langileak, gaitasun maila heterogeenoa eta, batzuetan, oso egokia ez izateaz gain, zenbait atal edo zerbitzutakoak izan dira, eta kasu batzuetan, zenbait sailletakoak. Horren eraginez, zaila izaten da administrazio-ataleko gai zehatzak lantzea.
- heterogeneotasun horren eraginez, administrazio-atal bakoitzeko ahozko eta idatzizko dokumentazioa aztertzerantz bideratuta egon beharko liritekeen jardueretan gai orokorrak lantzen dira, eta horrek ez du hobetzen langileek haien eginkizunak euskaraz garatzeko duten gaitasuna.
- baina taldeak homogeenak izanda jarduerak bideratuko balira langileek haien eginkizunak euskaraz garatzeko duten gaitasuna hobetzera, langileek paradoxa bat aurkitzen dute, alegia, herritarren aldetik eskaera urria da eta foru-administrazioaren esparru batzuetan oztupoak egoten dira askotan lana hizkuntza bakar batean garatzeko testuen itzulpena jo gabe, eta horrek ahalegin gehiago eskatzen du.
- langile batzuek saio presentzialetan parte hartzeko duten benetako arrazoia euskara mailari eustea da, ez euskara lan-esparruan erabiltzea.

Beraz, azaldutako arrazoiengatik eta, neurri apalagoan, jardueretara modu jarraituan ez joategatik, esan daiteke aipatu jarduerak euskararen erabilera sustatzeari egindako ekarpena antzekoa dela erabilera moduluak dituzten eta ez dituzten administrazio-ataletan. Hala ere, talde presentzialetan parte hartzen duten langileek euskara erabiltzen dute haiengana euskaraz hurbiltzen diren erabiltzaileekin. Euskaldun pasiboak dira, alderdi positibo bat, perspektiban ikusita.

On Line

Bi urtetan erabili dugu On Line sistema euskararen erabilera sustatzeko. Hori dela eta, ez daukagu behar den besteko daturik sistema honen balorazio egokia egiteko. Gero eta jende gehiagok eskatzen du sistema hau, bi arrazoiengatik: batetik, lan esparruarekin lotutako alderdi praktikoak lantzen direlako, eta bestetik, 2010-2011 ikasturteak aurrera, langile batzuei ez zaielako aukerarik eman Euskararen Erabilera Sustatzeko Planeko modulu presentzian parte hartzeko.

Ikastaroetan parte hartu dutenen balorazioa oso positiboa izan da, edukiei dagokienez zein trebatzaileek ikastaroan eskainitako arretari dagokionez.

EraMiak

Nabarmenezkoa da EraMiak ezarrita dituzten administrazio-ataletan euskara lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza moduan erabiltzeak gora egin duela, maila pertsonalean zein maila kolektiboan, ahoz zein idatziz. Oraindik zailtasun batzuk gainditu behar dira, administrazio izaerakoak zein izaera pertsonalekoak. Esate baterako, administrazio sarea gehienbat erdalduna denez eta informatikako programa batzuk euskaraz garatzeko prest ez daudenez, zaila da euskaraz lan egitea, eta, horren ondorioz, motibazioan eragin txarra du. Harreman pertsonaletan euskara erabiltzea zaila egiten zaie batez ere gaztelania ama hizkuntza duten langileei eta orain arte lankideekiko harremanetan gaztelania erabili dutenei, eta hori euskararen erabilera oztopatzen duen beste faktore bat da. Guk proposatzen dugun aldaketa hau, EraMietan parte hartzen duten langile gehienek onartzen dutena, konplexuena da eta dedikazio berezia eskatuko du. Langileek euskara erabiltzen dutenean seguru eta eroso sentitzea lortu behar dugu. Euskara erabiltzeko gizarte eskaera urria -gero eta handiagoa den arren- euskara erabiltzeko motibazioan eragin txarra duen beste faktore bat da.

1.4 IV. PLANGINTZALDIAREN BALORAZIOAREN ONDORIOZ EGITEN DIREN PROPOSAMENAK

- **Derrigortasun-data berriei buruzko proposamena**

Lehen puntuan emandako datuetan ikusten denez, Ogasun eta Finantza Saila eta Herri Lan eta Garraio Saila kenduta, gainerako sail guztietan Aldundiko batez bestekoa (%62,28) gainditzen da hizkuntza eskakizuna betetzeari dagokionez. Beraz, plangintzaldi honetan, derrigortasun-data berri gehien bi sail horietan esleituko dira.

- **Hizkuntza-trebakuntzari buruzko proposamena**

Aldundiak egiten dituen ohiko deialdietan, batez ere HAE Erekin batera antolatutako euskara ikastaroetara doazenek gainditzen dituzte hizkuntza eskakizunen azterketak. Horrek esan nahi du ikastaro horiek eraginkorrak direla, eta beraz, hizkuntza ikasteari mesede egiten dioten baldintzetan eskaini behar direla, euskara lan-hizkuntza izateko maila egokia bermatu arte. Helburu hori lortu ahal izateko gutxieneko bermea 3. HEk ematen du. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei 3. HEra arteko trebakuntza bermatuko zaie, haien lanpostuek beheragoko HE esleituta izan arren, betiere, ordu-kreditua agortuta ez badute.

- **Erabilera Sustatzeko Planari buruzko proposamena**

Euskararen erabilera plana modu logiko eta arrazionalagoan ezartzeko beharra planteatu da, eta Administrazio-hizkera 1.0 eta 2.0 On Line ikastaroak eta administrazio-ataleko modulua ezarriko dira.

2010-2011 ikasturtean modulu presentzialean eskatzaile berriek parte hartzeko aukera amaitutzat eman genuen arren, V. Plangintzaldirako Normalizazio Plana eztabaidatzeko Negoziazio Mahaian zenbait sindikatuk egindako proposamena aintzat hartuta, modulu hori berreskuratu egin da Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean.

Bestalde, EraMian parte ezin duten langileei beste aukera bat emateko eta euskararen erabilera modu eraginkorragoan sustatzeko, 2. HE egiaztatu duten langileei modulu berri batean parte hartzeko eskaintza egingo zaie: administrazio-ataleko modulua.

Modulu horretan, atal edo zerbitzu bereko langileen %50ek gutxienez parte hartu behar dute. Hala ere, inguruabar bereziak kontuan hartuko dira, eta erakundearen egitura organiko konplexuak eskatzen duen malgutasunarekin jokatu da. Atal edo zerbitzu horretako lan esparruari lotutako ahozko alderdiak eta dokumentuak landuko dituzte.

Langile horiek euskara erabiltzeko, adostutako saio guztietan parte hartzeko eta plana amaitu arte jarraitzeko konpromisoa hartuko dute.

Aurreko baldintzak onartuz gero, **ad hoc plana** egingo du Hizkuntz Normalizazio Atalak, parte-hartzaileekin adostuta.

2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO V. PLANGINTZALDIKO EGITASMOA (2013-2017)

2.1. ZENBAIT GOGOETA

2.1.1. IV. Plangintzaldiaren balantzeko datuei buruzko zenbait gogoeta

Aurreko puntuan IV. Plangintzaldiari buruz egin dugun balantzea eta bertan lortutako informazioaren analisisa abiapuntua izan behar dira plangintzaldi berrirako planaren koordinatuak egiteko.

Derrigortasun data duten lanpostuak	1982	100,00
Betetzailerak dutenak	1846	93,14
Egiaztatu dute	1505	81,53
Ez dute egiaztatu	284	
Salbuetsita	57	
Lanpostu hutsak	136	6,86

IV. Plangintzaldiaren amaieran (2012ko abendua), Bizkaiko Foru Aldundiko lanpostuak **3174** ziren guztira. Lanpostu guztietatik ehuneko **62,44k** (1982) derrigortasun-data esleituta du. Derrigortasun-data duten lanpostuen %93,14 (1846) beteta daude. %6,86 hutsik daude. Derrigortasuna duten lanpostuen betetzailerak ia **%82k** lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute, eta %5ek aurreko hizkuntza eskakizuna.

Hartzen baditugu hizkuntza eskakizuna, dagoeneko, egiaztatu dutenak gehi hutsik dauden lanpostuak alde batetik, eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenak gehi salbuetsitakoak bestetik, zera izango dugu:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-data duten lanpostuak	1982	100,00
Egiaztatu dutenak + lanpostu hutsak	1505+ 136 = 1641	82,79
Ez dute egiaztatu + salbuetsita	284 + 57 = 341	17,21

Beraz, betetze maila oso altua da, hau da, derrigortasun-data indarrean duten lanpostuen betetzailerak **%82,79k** egiaztatu dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna. Egia da lanpostuen %6,86 bete gabe dagoela, baina lanpostu horiek beteko diren neurrian, hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenekin beteko dira.

Herri-administrazioen hizkuntza normalizaziorako prozesuaren oinarritzko irizpidea hizkuntza eskakizunen sistema izan da, lanpostua gauzatzeko beharrezko ezagutza

moduan ezarri baita. Hurrengo laukian ikus daitekeenez, aurreko plangintzaldiaren amaieran 20 puntutan gainditu da (**%62,44**) 2013ko urtarrilaren 1ean ezarritako gutxieneko derrigortasun-indizea (%42,85). Era berean, 8 puntutan gainditu da EAEn hizkuntza eskakizuna esleituta duten lanpostuen batez bestekoaren ehunekoa (%54,5).

Datu horiek argi erakusten dute Aldundiko langileek eta erakundeak berak egin duten ahalegina, baina ez dira homogeenak sail guztietan. Sailen arabera balantzearen laukian ikusten denez, Ogasun eta Finantza Sailean eta Herri Lan eta Garraio Sailean, betetze-ehunekoa batez bestekoaren azpitik dago. Hori dela eta, gure proposamena da sail horietan derrigortasun-data gehiago esleitzea.

Balantze honetatik zein hizkuntza normalizaziorako planen inguruan aurretik egindako balantzeetatik ondorioztatzen da herri-administrazioetako langileen hizkuntza-gaitasuna asko hobetu dela. Datu horiek guztiak deigarriak diren arren, hutsune nabarmenak sumatzen dira azterketa erabileraren ikuspuntutik egiten denean. Urteetako eskarmentuak erakutsi digu ez dela nahikoa hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta izatea hizkuntza erabiltzeko. Hizkuntza eskakizun batzuek ez dute euskararen gaitasun maila nahikorik bermatzen eguneroko zereginei aurre egiteko; ez eta norberaren eta inguruko arteko harremanak hizkuntza horretan izateko ere. Hori nabarmen gertatzen da 1. HEren kasuan eta, zereginen arabera, 2. HErekin ere bai. Erabileran benetan sakondu nahi badugu —sortze lanaren bidetik, bereziki—, ezinbestekoa da honako hau bermatzea: eskuratutako euskara mailak hizkuntza horretan erositasunez aritzeko adinako ezagutza ematea. Horren ondorioz, 3. HEra arteko hizkuntza-trebakuntza bermatzeko proposamena egin dugu, lanpostuak beheagoko HE esleituta izan arren.

2.1.2. Langileen adinaren eta borondatearen aldagaiak

Badago aldagai bat, nahitaez, kontuan hartu behar duguna hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko orduan: adina, hain zuzen. Izan ere, 86/1997 Dekretuak xedatzen du, 45 urtetik gora dutenek eska dezaketela lanpostuaren hizkuntza eskakizuna betetzetik salbuetsita geratzea. Horrek esan nahi du adin horretatik gora zaila dela hizkuntza bat lanpostuaren zereginak eskatzen duen mailan ikastea. Bizkaiko Foru Aldundiko langileen batz besteko adina **47,60** urtekoa da, eta sailen arteko konparaketa eginez gero, Gizarte Ekintza da sailik gazteena (43,96 urte, batez beste) eta zaharrena, aldiz, Nekazaritza Saila (49,31 urte, batez beste). Hau da, langileen kopuru handia euskara ikasteko atalase mailatik gora dago. Horiek horrela, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, honako hau pentsa daiteke: hizkuntza eskakizuna lortu ez duen

plantillaren %38 horren langile gehienek erretiroa hartu arte hizkuntza bakar batean baino ez dutela lan egingo.

Hizkuntza eskakizuna lortu arren euskara erabiltzeko borondaterik ez dutenak ere aintzat hartu behar ditugu kasuistikaren deskripzioa eta egoeraren azterketa osatzeko. Izan ere, zenbait kasutan hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko egiten diren ahaleginek helburu instrumental hutsa izaten dute, hau da, ibilbide profesionalean gora egiteko edota lanpostuz aldatzeko aukera murriztagoa da lanpostuen hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenentzat lortu dutenentzat baino. Inguruabar hori ezin da alde batera utzi jarduera jakin batzuk planteatzerakoan.

2.1.3. Administrazioaren egitura organikoa eta horren eragina

Administrazioa, bere eginkizunak burutzeko, administrazio-ataletan egituratzen da. Definizioz, administrazio-atal elebidunak dira beren funtzio eta zereginak bi hizkuntza ofizialetan egin ditzaketenak. Baina, administrazio-atalak elebidun izendatzeko arrazoia ez da —logikak agintzen duen bezalaxe— ataleko langileek hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko duten gaitasuna, administrazio-atalak duen izaera baizik. Hori dela eta, jendaurreko eta gizarte izaerako administrazio-atalak elebidun izendatuko dira beti, atal horiek osatzen dituzten langileen hizkuntzaren ezagutza maila kontuan hartu gabe. Horrez gain, Funtzio Publikoaren Legeak ahalbidetzen du hizkuntza eskakizun bat esleituta izanda oraindik egiaztatuta ez duten langileak maila bereko baina derrigortasun-datarik gabeko beste lanpostu bati atxiki ahal direla. Oraingoz neurri hori ez da administrazio batean ere hartu, eta ziurrenik ez litzateke erraza izango praktikan jartzea, langileek dituzten beste eskubide batzuekin talka egingo bailuke eta egoera benetan nahasgarria izango bailitzateke.

Bestalde, administrazio-ataletako langileak izan ez arren, ataletan zuzenean lan egiten da diputatuekin, zuzendarekin, aholkulariekin, idazkariekin eta aldi baterako funtzionarioekin. Baina, batzuetan, pertsona horiek ez dute euskara jakiten, lanpostu horietan ez baita beharrezkoa izaten hizkuntza eskakizunik egiaztatzea.

Hizkuntza egoeraren azterketa honetan ezin dugu ahaztu, era berean, Administrazioan lanean ari den belaunaldiak bere ikasketak, gehienbat, gaztelaniaz egin dituela, eta ibilbide profesionala ere gaztelaniaz garatu duela. Beraz, hizkuntza ohiturak ondo errotuta daude lan-esparruan. Ezin pentsa, bada, bat-batean hizkuntza ohiturak alda daitezkeenik plan baten eragin hutsez.

2.2 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EGITASMOAK

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, hizkuntza normalkuntza-prozesua hezurmani dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du.

Dekretu horren 2. artikuluan xedatzen da herri-aginteeek euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituztela.

Beraz, administrazioaren hizkuntza normalizazioak esan nahi du administrazio horrek gaitasuna duela administratuari zerbitzuak euskaraz emateko ahoz zein idatziz (zerbitzu-hizkuntza) eta administrazio horretako langileak gai direla eginkizun guztiak euskaraz egiteko (lan-hizkuntza).

2.2.1. Administrazio elebidunerantz

Hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik lortu nahi den administrazioa erronka garrantzitsua da, eta gure egoeran helburu arranditsua da. Euskara zerbitzu-hizkuntza moduan hartuta, normalizazio egitasmoen bidez egindako ibilbideari esker, euskara administratuarekiko harreman hizkuntza izan ahal izatea berma dezakegu. Eta hori frogatuta dago, euskaraz artatuak ez izateagatik jasotako kexen kopuruak behera egin duelako nabarmen, ia-ia gauza anekdotikoa izan arte. Euskara lan-hizkuntza moduan hartuta, egoera urrun dago gutxieneko parametro batzuk gainditzetik, norabide honetan aurrerapauso esanguratsuak eman diren arren.

Administrazioan gero eta gehiago sarean lan egiten da. Beraz, euskara lan-hizkuntza izateko, lehen mailako sareko kideak, hau da, administrazio-atal bereko langile guztiek, behintzat, behar besteko ezagutza maila izan behar dute beren funtzioak euskaraz burutzeko. Eta, datuetan ikus daitekeenez, egoera horretatik, mementoz, urrun gaude.

Horrez gain, kontuan hartu behar ditugu aipatutako egoerak eta horien ezaugarriak: hizkuntz ohiturak, adina, pertsonalaren politikan funtzio publikoak ezarritako mugak, izendapen askeko karguek hizkuntza betekizunik ez izatea, euskaraz aritzeko borondate eza... Egoera horiek, gaur egun, oztopatzen dute euskara lan-hizkuntza moduan normalizatzea.

Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko planak eta plangintzaldiak burutzeko premia sumatzen badugu, elebidun izan nahi duen administrazio batean — Administrazioak bi hizkuntz ofizial dituela xedatu baitu—, euskarak, oraindik, erabilera normalizatua ez duelako da.

Ikusi dugun bezalaxe, erabilerari dagokionez, langileek, oro har, bi hizkuntzak maila bertsuan jakitea da Administrazioan elebitasun orekatu bat lortzeko lehen baldintza. Euskararen ezagutzaren aurrerakada handia gertatu bada ere, Bizkaiko Foru Aldundian, oraindik —eman ditugun datuen arabera—, nahiko urrun gaude baldintza hori betetzetik.

Horrekin batera, zenbait lan-funtzio euskaraz garatu ahal izateko bermatu behar da hizkuntzaren ezagutza. Beraz, V. Planean langileen euskalduntzeari tarte zabala eskaini behar zaio, eta zenbait lanposturen hizkuntz eskakizunak egokitu behar dira.

Euskara lan-hizkuntza normala bihurtzeko trebakuntza berezia landuko da, hizkuntza ohitura berriak sortzearen. Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna lortu duten guztiek aukera izango dute trebakuntza berezi horretan parte hartzeko. Baina, erakundeak aintzat hartu behar ditu motibazioa sustatzeko zein ildo honetatik egiten diren ahaleginak.

Bestalde, ezinbestekotzat jotzen dugu bide horretan aurrera egiteko erreferenteak izatea; horregatik, lidergo informala deritzogun aldagaia landuko dugu. Bide hori urratuz, ikerketa-interbentzioen bidez, administrazio-unitate batzuetan kide guztien adostasunez, saiatuko gara euskara lan-hizkuntza normala bihurtzen.

Lana eta lan-hizkuntza

Bada beste gauza bat kontuan hartu behar duguna: Administrazioak, kasu honetan Aldundiak, produktu batzuk eskaintzen ditu eta horien artean ez dago euskara produktu gisa. Besterik da, produktu horiek hizkuntza batean eskaini behar direla, eta Administrazioan, salbuespenak salbu, hizkuntza ofizialean edo ofizialetan. Euskal Administrazioan, bi hizkuntza ofizial daukagu; bata edo bestea erabili, hizkuntza ez da produktua izango, bitartekoa baizik. Lan-hizkuntzaren ezaugarri horrek izugarrizko eragina izango du lan-esparru barruko hizkuntzaren erabileran. Ikuspegi horretatik, Administrazioak eskaintzen duen produktua (lana edo zerbitzua) herritarrak eskatzen duen kalitatearekin emateko hizkuntza ofizialetariko bat oztupo bihurtzen bada, bazter utziko da hizkuntza-bitarteko hori eta orain arte ohikoa izan den hizkuntza erabiliko da.

Jokabide horrek lehentasun batzuk markatzen ditu, hau da, “zer” da garrantzitsuena eta ez “nola”.

Administrazioak herritarrei zuzentzen dizkie bere lan eta zerbitzuak. Hizkuntzari dagokionez herritarren eskaera handia izango balitz euskara administrazioarekiko harremanetarako hizkuntza normalizatua izan arte, aldagai horrek eragin zuzenez izango luke euskara ohiko lan-hizkuntza bihurtzeko. Baina, zoritxarrez, hori ez

da gertatzen. Arlo horretan, gizarte-eskaera ahula da, Bizkaiko Foru Aldundiak diharduen esparruan behintzat. Dena den, gure helburuetarako aldagai eraginkorra denez, Administrazioak gizarte-eskaera sustatzen saiatu behar du.

2.2.2. Egitasmoaren eragin-esparrua

Egitasmo honek Bizkaiko Foru Aldundiko sail eta langile guztiak hartzen ditu barruan. Egitasmo hau onartu eta hurrengo sei hilabeteetan egingo da egitasmoaren egokitzapena GUFEn erakunderako.

2.2.3. Egitasmoaren indarraldia

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onartzen duen egunaren biharamunean jarriko da egitasmo hau indarrean, eta hala iraungo du VI. plangintzaldirako egitasmoa onartu arte.

2.2.4. Egitasmoaren helburu nagusiak

Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko egitasmoen helburu nagusia da euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza moduan erabiltzeko neurri eraginkorrek hartu eta praktikan jartzea.

Helburu hori lortzeko bidean ez dugu zerotik abiatu behar, honakoa bosgarren plangintzaldia baita. Aurreko lau plangintzaldietan aurrerapauso esanguratsu eta erabakigarriak eman dira. Hori dela eta, gaur egun esan dezakegu administratuen hizkuntza eskubideak bermatuta daudela, euskara zerbitzu-hizkuntza moduan normalizatuta baitago.

Beraz, erakundeak hurrengo plangintzaldian egin beharreko ahaleginak batez ere izan behar dira euskara lan-hizkuntza moduan erabiltzea sustatzearen inguruan.

Baina, normalean gaztelaniaz lan egiten duen administrazioan nola lor daiteke euskara apurka-apurka lan-hizkuntza ere izatea?

Galdera horren erantzuna inplikaturako estamentu eta kolektiboen borondatean eta jarreran bilatu behar da, guztion artean ahalegina eginez.

Euskara lan-hizkuntza moduan erabiltzearen alde egindako jarduera proaktiboak ez dira lortzen ezarpenaren edo arauen bidez. Jokabide horiek erraztu eta bultzatzeko, hobe da testuinguru egokia sortzea. Beraz, langileak erakarri behar ditugu haien lana euskaraz egin dezaten, baina ez ditugu horretara behartu behar. Horretarako, motibazioa lantzeaz gain, lan-baldintzek egokiak izan behar dute, eta bitartekoek ugariak, euskaraz lan egitea gaztelaniaz lan egitea baino garestiagoa izan ez dadin.

Erakundearen borondatea

Dagoeneko 25 bat urte pasatu dira Bizkaiko Foru Aldundiak langileek euskara ikasteko lehenengo plana egin zuenetik. Urte horietan guztietan, hainbat eta hainbat foru-langilek ikasi dute euskara, aurreko plangintzaldiaren balantzeari buruzko atalean ikus daitekeenez; kasu askotan, gainera, hizkuntzarekiko konpromisoak ekarri du lanean euskara gero eta gehiago erabiltzea.

Hizkuntzarekiko konpromisoa instituzionala ere bada, eta horrela adierazi zuen Ahaldu Nagusiak bere izendapen egunean egin zuen hitzaldian: “Euskeragaz, bera egongo delako Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan, hizkuntza normalizazioaren bitartez, eta bera izango da guztiok erabiltzen dugun hizkuntza gure Erakundearen arlo guztietan”.

2.2.5. Egitasmoaren helburuak lortzeko egitura eta bideak

Herri-administrazioak, bere funtzioak betetzeko, administrazio-atalen egitura hartzen du. Administrazio-atalek izaera desberdina dute betetzen dituzten funtzioen arabera. Horrela, izaeraren arabera administrazio-atalen hurrengo sailkapena egin daiteke:

- jendaurreko administrazio-atalak,
- gizarte-izaerako administrazio-atalak,
- zeharkako administrazio-atalak,
- izaera orokorreko administrazio atalak eta
- administrazio-atal bereziak.

2.2.5.1 Jendaurreko atalak eta zerbitzu-hizkuntza

Jendaurreko izaera duen atalaren funtzio nagusia herritarrari ahoz zein idatziz harrera egitea da, hau da, informazioa ematea, zalantzak argitzea, administrazio-tramiteetan laguntzea eta abar. Beraz, jendaurreko ataletan zerbitzu-hizkuntzak beste ataletan baino garrantzi handiago hartzen du. Horrek honakoa eskatzen du: atal horretako langileek bi hizkuntza ofizialetan behar besteko gaitasuna izatea beren funtzio nagusia ondo bete ahal izateko.

Teorian hizkuntza eskakizunek lanpostuko eginkizunak euskaraz gauzatzeko behar den besteko ezagutza ematen duten arren, hizkuntza eskakizun guztiek ez dute bermatzen euskara zerbitzu-hizkuntza izateko behar den hizkuntza-gaitasuna. Hori dela eta, jendaurreko ataletan herritarrekin harremanak dituzten pertsonen lanpostu guztiei 3. HE esleituko zaie. Modu berean jokatu da jendaurrekoak ez diren ataletan,

baldin lanposturen batek betetzen duen funtzio nagusia herritarrari harrera egitea bada.

2.2.5.2 Erabilera sustatzeko mikroplanak (EraMi): euskara lan-hizkuntza moduan erabiltzeko tresna

Euskararen erabilera normalizatzeko egitasmoen xede nagusia da epe ertainean Administrazioan elebitasun orekatua lortzea. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da Administrazioaren barruan aldaketa bat egitea. Bizkaiko Foru Aldundian aldaketa hori modu planifikatuan egin nahi da. EraMi bat ezarrita duten administrazio-atalak izango dira planifikazio horren motorrak. Baina Administrazioan lanean ari den belaunaldiak ikasketak, gehienbat, gaztelaniaz egin ditu eta ibilbide profesionala ere gaztelaniaz garatu du; beraz, hizkuntza ohiturak ondo errotuta daude lan-esparruan. Dena den, azken boladan, sumatzen ari gara langileen artean euskararen aldeko joerak indartzen ari direla. Horretarako egon daitezkeen arrazoiak artean, besteak beste, honako bi nagusi hauek daude: batetik, eskolan eta unibertsitatean euskarazko ereduetan ikasi duten langile berriak Aldundira sartu izana, eta, bestetik, azken urteotan, Aldundiaren barruan euskara maila bat lortu dutenentzat garatu diren “erabilera planen” bidez, euskaraz lan egin ahal izateko burutu den hizkuntza-trebakuntza berezitua.

Esan dugunez, Administrazioaren egituraren oinarria administrazio-atala da. Administrazio-atalak elebidunak izan daitezke, alegia, beren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan betetzeko gai direnean. Teorian horrela bada ere, praktikan ez da beti horrela gertatzen, besteak beste, administrazio-atal bat elebidun izendatzeko kontuan hartzen dugun ezaugarria bere izaera delako eta ez langileen hizkuntza-gaitasuna.

Bestalde, nahiz eta hizkuntza-gaitasuna izan, atal elebidun izendatzeak ez dakar, berez, administrazio-atal horren lan-hizkuntza euskara izatea. Hori bakarrik gertatuko da baldin eta atal horretako kideek hala izateko borondatea agertu badute.

Bi bide aurreikusten ditugu EraMi bat ezartzeko:

- a) administrazio-atal batek, ataleko buruaren bidez eta saileko zuzendaritzaren oniritziarekin, bere nahia adieraztea Hizkuntz Normalizazio Atalari.
- b) Hizkuntz Normalizazio Atalak, zenbait baldintza eta ezaugarri aztertu ondoren, egoera egokia dela ikusirik, atalari proposamena aurkeztea. Bigarren honetan, beharrezkoa da, proposamena jaso eta aztertu ondoren, atalak onartzea. Ez da aurreikusten, salbuespenak salbu, Administrazioak bere kabuz Erabilera Mikroplanik ezartzea. Ataleko kide guztien borondatea eta adostasuna izango da oinarria EraMi bat ezartzeko.

EraMi bat ezarrita duten administrazio-ataletan hiru ezaugarri hauek azpimarratuko genituzke:

- Administrazio-atala osatzen duten kide guztiek behar adineko euskara maila izatea; lanpostuaren HE egiaztatuta izatea, gutxienez. Administrazio-atal batean EraMi bat ezartzearen ondorioz gerta daiteke lanpostu batzuei hizkuntza eskakizuna aldatu behar izatea, ataleko kideek bete behar dituzten funtzio eta zereginak euskaraz erosotasunez egin ahal izateko. Aurrekoa bermatzeko, administrazio-ataleko lanpostu guztiei 3. HE esleitu ahal izango zaie.
- Administrazio-atala osatzen duten kide guztien adostasuna.
- Administrazio-atalean euskara lan-hizkuntza bihurtzeko ikerketa-interbentzio bat egitea.

Borondatea eta adostasuna beharrezkoak badira ere, oro har, ez dira nahiko atalean jokabide elebidun batean abiarazteko. Gorago aipatu dugu Administrazioan lanean ari den belaunaldiak bere ikasketak, gehienbat, gaztelaniaz egin dituela eta ibilbide profesionala ere gaztelaniaz garatu duela. Beraz, hizkuntza ohiturak ondo errotuta daude lan-esparruan. Egoera horretan eragiteko ikerketa-interbentzioak diseinatu eta egikaritu behar ditugu.

Ikerketa-interbentzioen metodologia

Plan honetan, EraMi bat ezarrita daukaten administrazio-ataletan eraldaketa burutzeko proposatzen diren ikerketa-interbentzioak EPEsA metodologian (Euskara Planetan Eskuartze Analitikorako Metodologia) oinarrituta daude. EPEsA metodologia euskararen normalizaziorako planak egikaritzen ari diren organizazioetan esku-hartze analitikoak diseinatzeko eta burutzeko eredu metodologikoa berria da. EraLan ikerkuntza/ekintza proiektuan egokitu eta aplikatu den diseinu metodologikoan oinarrituz garatu da.

2.2.5.3. Euskaraz lan egin ahal izateko bestelako baliabideak

Euskara euskal administrazioan hizkuntza ofiziala den arren, Bizkaiko Foru Aldundiak, konkretuki, nekez bete ditzake bere zeregin eta funtzioak euskaraz zenbait baliabide, itzulpena adibidez, erabili gabe.

Atal batek EraMi bat ezarri delako euskara lan-hizkuntzatzat duen arren, espedienteen izapidetza ez da beti atalean hasi eta bukatzen, nolabaiteko zirkuitu administratiboa jarraitu behar du. Zirkuitu horren osotasunean izapidetzea euskaraz egin ahal izatea bermatzeko, beste baliabide batzuk izan behar dira, hala nola itzulpena eta

trebatzaileen laguntza. Hortaz, euskaraz lan egin nahi dutenen eskubidea, gaztelaniaz egiten dutenen baldintza berdinetan bermatu nahi badugu, giza baliabidez zein baliabide materialez hornitu behar dugu gure lan-jarduera.

Horrela, bada:

1. Bizkaiko Foru Aldundiko langileek aukeratu ahal izango dute zein hizkuntzatan egin nahi duten beren lana. Aukera euskararen alde egiten badute, espedienteen izapidetzea eta gainerako harreman idatziak euskara hutsean bideratuko dituzte.
2. Hizkuntza-aukeraketa dela eta, espediente horiek burutu behar duten administrazio-prozeduraren edozein unetan aurrera egitea galarazten duen oztoporik sortuz gero, hizkuntza-arazoa sortu den tokian edota arazoa daukana arduratu beharko da soluziobideak topatzen, baina inoiz ez da atzera botako itzulita bidal dezaten.
3. Bigarren puntuan azaldutako egoera gainditu ahal izateko, besteak beste, honako giza baliabide hauek eskuratu ahal izango dira: Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologia Ataleko itzultzaileen zerbitzua eta Hizkuntz Normalizazio Ataleko trebatzaileen jardura.

Horrez gain, euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzearen aldeko aukera egiten dutenek bestelako baliabide materialak ere izango dituzte eskuragarri, bereziki, informatika arloan.

1. Hemendik aurrera, EraMi bat ezarrita dagoen administrazio-atalean erabiltzeko beren-beregi sortuko diren programa eta aplikazio informatikoetan, euskarazko bertsioak izango du lehentasuna. Gainerako ataletan erabiltzeko sortuko diren tresna informatikoak bi hizkuntzetan lan egin ahal izateko prestatuta egon behar dira.
2. EraMi bat ezarrita dagoen administrazio-ataletan gaur egun erabiltzen diren programa informatikoak euskaraz erabiltzeko prestatu ez badaude, eperik laburrenean egokitu eta prestatu beharko dira euskaraz erabili ahal izateko.
3. Programa informatiko komertzial edo orokorrak direnean, euskarazko bertsiorik eginik badago, bertsio horrek izango du lehentasuna EraMi bat ezarrita dagoen ataletako lanpostuetan jartzeko. Programa horiek jarri behar diren gainerako lanpostuetako titularrei ere eskainiko zaie euskarazko bertsioa.

Bestalde, baliabideen artean ezin dugu ahaztu garrantzi handiko bat: prestakuntzarena.

1. Hizkuntza-prestakuntza. EraMi bat ezarrita dagoen administrazio-ataletan hizkuntza-prestakuntza berezia emango da ikerketa-interbentzioen bitartez.

Gainerako langile guztiei ere zabaltzen zaie hizkuntza-trebakuntza bidea "Erabilera Planen" bidez (ikus 5. atala).

2. Lanposturako prestakuntza. EraMi bat ezarrita dagoen ataletan lehenetasun osoa izango du gaiak euskaraz emateak. Beraz, trebakuntzaren arduradunek saiatu beharko dute gai horiek, gehienbat, euskaraz eman ahal izateko bideak jartzen.
3. Karrerako prestakuntza. Prestakuntza mota honetan hainbat ikastaro eskaintzen dira urtero. Urteko prestakuntza egitasmoa egiterakoan kontuan hartuko da Aldundiko langileek hizkuntza-gaitasunean izan duten bilakaera. Euskaraz egin ahal izango diren ikastaroen eskaintza bilakaera horren arabera izango da.

2.3. MOTIBAZIOA ETA GIZARTE ESKAERA SUSTATU BEHARRA

Administrazioak, erakundearen barruan erabilera sustatuz, euskararen normalizazioan ahalegin handiak egin baditu ere, desoreka handia sumatzen da, oraindik ere, hizkuntzen artean. Izan ere, Administrazioan gaztelaniaren erabilera ia erabatekoa da, soziolinguistikoki oso eskualde euskaldunetan ez bada, behintzat.

Benetako elebitasun orekatu baterantz abiatu nahi badugu, Administrazioak bi aldagai, bereziki, landu behar ditu hizkuntza normalizazioko prozesuetan: erakundeko pertsonalaren motibazioa eta gizarte eskaera.

2.3.1. Erakundeko pertsonalaren motibazioa sustatu

Honako hau da EraLan proiektuak motibazio aldagaiari buruz ematen duen definizioa: "Norbanakoak nahiz taldeak euskararekiko, orokorrean, eta egon daitezkeen euskararen erabilera sustatzeko planekiko, konkretuki, agertzen duten interesa eta aldeko jokabidea (faktore kontziente edo inkontzienteak)".

Definizio horretatik ondorioztatzen dugu euskararen alde motibatzeak jokabidea aldatuko lukeela eta langileek aldeko jarrera hartuko luketela. Gure kasuan, euskara administrazio-ataletako lan-hizkuntza bihurtzeko ahaleginak eginez.

Bestalde, Administrazioan ari garenez, EraMi bat ezarrita daukaten administrazio-atalek zerbitzu-kalitate handiagoa ematen dute gainerakoek baino; izan ere, administrazio-prozeduran, kostuan zein denboran aurrezte eta aurreratzea dakarte.

Egoera horretan, Administrazioak saritu behar ditu jokabide-aldaketa horiek.

2.3.1.1. Erabilerarako Mikroplanetako partaideen errekonozimendua

Euskara planak dituzten organizazioetan euskararen erabileran eragin zuzena duten aldagaien artean, "erabilerarako mikroplanetako partaideen

errekonozimendua" aldagaia da EraLan proiektuak jasotzen duen garrantzitsuetariko bat.

Beraz, EraMi bat ezartzen den ataletako partaideek egiten duten ahalegina aintzat hartuko du Bizkaiko Foru Aldundiak.

2.3.2. Gizarte eskaera sustatu

Gizarte eskaerak Administrazioarentzat euskara erabiltzeko exigentzia dakarren neurrian, berebiziko eragina izango du Administrazioaren hizkuntza normalizazioan. Administrazioak bere egiturak egokitu beharko ditu gizarte eskaera horri erantzuteko, eta erronka gisa planteatzen zaion eskakizun horri erantzun egokia emateko gai den neurrian, herritarren gogobetetze maila handia izango da. Egoera hori gertatzen denean, exigentziak sortzen duen tentsioa apaldu egingo da eta Administrazioaren eta herritarren arteko feedback erako harremanetan hizkuntzen erabilera lasaia eta normalizatua izango da.

Baina, gizarte eskaerak lotura handia du inguruaren egoera soziolinguistikoarekin eta, zoritxarrez, Bizkaiko Foru Aldundiak eragina duen eremuan dagoen egoera soziolinguistikoak oso gizarte eskaera ahula eragiten du. Beraz, hizkuntza normalizaziorako bide hau guztiz eraginkorra denez, Bizkaiko Foru Aldundia gizarte presioa sustatzen ahalegindu behar da.

2.3.2.1. Gizarte eskaera sustatzeko zenbait gomendio

Gizarte eskaera sustatzeko orduan eraginkorrak izan nahi badugu, honako hauek kontuan hartu behar ditugu:

- Oro har, Bizkaiko herritar guztiak Aldundiko "bezeroak " badira ere, sail bakoitzak bere bezero propioei zuzentzen dizkio bere jarduera eta zerbitzuak.
- Sail bakoitzak barneratu behar du, berari dagokiola bere bezeroen artean gizarte eskaera sustatzea eta zeregin hori ez dela hizkuntza arloan ari diren arduradun, teknikari eta bestelakoen gaia.
- Edozein plan, proiektu, laguntza, eta abar ezarri nahi denean, hasiera-hasieratik kontuan hartu behar da hizkuntza irizpidea.
- Sail bakoitzak sailarekiko harremanetan (idazkiak, eskabideak, dokumentazioa, e-mailak, bilerak, elkarrizketak...) euskara erabiltzen duten norbanako zein talde, enpresa, elkarte eta abarren zerrenda egingo du, ahal den neurrian.
- Sailak arreta bereziarekin jokatuko du euskaldunen zerrendan daudenekin: aldiro-aldiro beraiekin harremanetan jarriko da; zenbait proiektutan lehentasuna eman eta Aldundiak atera edo eskuratzen

dituen euskarazko produktuak dohainik edota baldintza berezietan helaraziko dizkie...

2.4. HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO BATZORDE NAGUSIA

Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza normalizatzeko planaren jarraipen eta koordinaziorako organoa izango da eta sailarteko izaera izango du.

Partaideak:

- Batzordeburua: Kultura diputatua.
- Batzordeburuordea: Euskara Sustatzeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Hizkuntz Normalizazio Ataleko burua.
 - Hizkuntz Normalizazioaren arduraduna.
 - Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzaren arduraduna.
 - Sail bakoitzeko Zerbitzu Orokorraren Zerbitzuko burua / teknikaria.
 - Langileen Batzordeko edo Enpresa Batzordeko ordezkaria.
- Idazkaria: Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, hitzarekin baina botorik gabe.

Hizkuntz Normalizaziorako Batzorde Nagusia urtean behin bilduko da, gutxienez, eta, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu:

- Saitetako hizkuntza normalizazioaren egoera aztertzea eta, azterketa hori oinarri hartuta, proposamen berriak egitea.
- Plana aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen laguntzea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak sailetan betetzen direla zaintzea.

3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK

86/1997 Dekretuaren 15. artikuluan xedaturikoaren arabera, administrazio-atal elebidunak eta, bidezkoa bada, euskaraz dihardutenak izango dira euskal administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak finkatzeko oinarri eta euskarria. Ildo horretatik, unitate horiek izango dira euskararen erabileraren normalizazioa planifikatzeko sistemaren muin eta ardatza.

3.1. ADMINISTRAZIO ATAL ELEBIDUNEN DEFINIZIOA ETA SAILKAPENA

Administrazio-atal elebidunak dira euskal administrazioko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan beren zereginak betetzen dituztenak.

86/1997 Dekretuaren 17. artikulua xedatzen duenaren arabera, erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean, Bizkaiko Foru Aldundiaren kasua, jendaurreko administrazio unitate guztiak, gazteriarekin harremana dutenak eta gizarte mailakoak elebiduntzat hartu behar dira.

Horrela egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 1999an onartu zuen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean. Xedapen horri salbuespen batzuk egin zitzaizkion, adibidez, izaera orokorra zuen administrazio-atalen bat elebidun izendatu zen, zegokion sailak beren-beregiko eskaera egindakoan, sailaren barruko inguruabarrak ikusirik gomendatzekoa baitzen halako unitateak elebiduntzat hartzea. Bestalde, ikuspegi soziolinguistikoa aintzat harturik, gehiengo erdalduneko eskualdeetan kokatzen diren administrazio unitateak ez ziren elebiduntzat hartu, izaeraren arabera elebiduntzat hartzekoak izan arren.

2005ean, Bizkaiko Foru Aldundiak onetsi zuen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berrian, 1999ko Planean elebidun izendatutakoei gehitu zitzaizkien zeharkako administrazio-atalak, hau da, ordura arte izaera orokorreko gisa hartuak izan baina Aldundiko langile guztiei edo sail barruko guztiei zuzendutako zerbitzu horizontaleko administrazio-atalak. Baita ere, izaera orokorreko administrazio-atalak, betiere, unitatea osatzen zuten langile guztiek zegokien HE egiaztatu zutenean.

2013-2017 plangintzaldi berrirako:

- Izaeraren arabera elebiduntzat hartzekoak izan arren gehiengo erdalduneko eskualdeetan kokatzen ziren administrazio unitateak ez ziren elebiduntzat hartzen; aurrerantzean, salbuespen hori bertan behera geratuko da.

- Elebidunak izango dira lanpostu guztiek hizkuntza eskakizuna ezarrita duten edo lanpostuko HE betetzen duten langileak dituzten administrazio-atalak.
- Salbuespen bat dago. Ogasun eta Finantza Sailean, gizarte-izaerako bi administrazio-unitate, 05123 IKUSKAPEN JARDUEREN I. ZERBITZUA eta 05123 IKUSKAPEN JARDUEREN II. ZERBITZUA, ez dira elebiduntzat hartuko. Izan ere, epe laburrean, ikuskatzaile lanpostu guztiak ezin dira bete lanpostuari esleitutako 3. HE duten langileekin. Beraz, sail horren eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren eskaera betetz, bi zerbitzu horiek ez dira elebidun izendatuko.

Baina elebidun izan ez arren gizarte-izaerakoak direnez, lanpostuak behin betiko betetzerakoan, horien ehuneko batek derrigortasun data izatea onartu da. Ehuneko hori %42,85 izango da, Aldundiak plangintzaldi honetarako duen derrigortasun-indizeari dagokiona.

Kontuan harturik sailtako egitura organikoetan aldaketa nabarmenak egon direla azken legegaldian, irizpide berdinak erabiliz, ondoko laukian jasotzen ditugu, gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren antolaketa-egitura osatzen duten administrazio-atal guztiak, sailez sail, izaeraren eta izenaren arabera.

3.2. ADMINISTRAZIO-ATALAK ETA ATALEN IZAERA

KODEA	SAILA	IZAERA	ELEBIDUNA	
01	AHALDUN NAGUSIARI LAGUNTZEKO UNITATEA	OROKORRA	EZ	
01000001	PROTOKOLO ARLOA			
01000002	IDAZKARITZA NAGUSI TEKNIKOA			
011	KOMUNIKAZIORAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA			
01001	ZERBITZU ZENTRALEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
02	NEKAZARITZA SAILA			
0201	IDAZKARITZA NAGUSI TEKNIKOA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
02011	ZERBITZU OROKORRAK	ZEHARKAKOA	BAI	
020111	INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
020112	ONDAREA KUDEATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
02012	UNITATE PERIFERIKOEN ETA ANTOLAKETAREN ZERBITZUA	Zentroen arabera		
	00600 Madariaga	JENDAURREKOA	BAI	
"	01100 NEB Balmaseda	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	01200 NEB Durango	JENDAURREKOA	BAI	
"	01300 NEB Gernika	JENDAURREKOA	BAI	
"	01400 NEB Igorre	JENDAURREKOA	BAI	
"	01500 NEB Karrantza	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	01600 NEB Markina	JENDAURREKOA	BAI	

"	01700 NEB Mungia	JENDAURREKOA	BAI	
"	01800 Derioko laborategia	OROKORRA	EZ	
02013	AHOLKUAK EMATEKO ETA ARAUAK GARATZEKO KABINETEA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
021	NEKAZARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIA			
02101	ABELTZAINITZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
021011	ABERE OSASUNAREN ATALA	Zentroen arabera		
"	00500 Agirre lehendakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07520 A:G Lezama	GIZARTE IZAERA	BAI	
021012	ABEREEN AUKERAKETA ETA HOBEKUNTZARAKO ATALA	Zentroen arabera		
	00500 Agirre lehendakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	01900 Gorlizko abeletxea	OROKORRA	EZ	
"	07522 A.G Meñaka	GIZARTE IZAERA	BAI	
02102	NEKAZARITZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
021021	LANDARE EKOIZPENAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
021022	BARAZKIGINTZAREN, FRUTAGINTZAREN ETA LANDARE BABESAREN ATALA	Zentroen arabera		
	00500 Agirre lehendakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	01800 Laboratorio Agrícola Derio	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	02000 Zallako frutagintza estazioa	GIZARTE IZAERA	BAI	
02103	NEKAZARITZA GARATZEKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
021031	LANDA AZPIEGITURAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
021032	NEKAZARITZA EGITUREN ATALA	Zentroen arabera		
	00500 Agirre lehendakaria	JENDAURREKOA	BAI	
"	01100 NEB Balmaseda	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	01200 NEB Durango	JENDAURREKOA	BAI	
"	01300 NEB Gernika	JENDAURREKOA	BAI	
"	01400 NEB Igorre	JENDAURREKOA	BAI	
"	01500 NEB Karrantza	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	01600 NEB Markina	JENDAURREKOA	BAI	
"	01700 NEB Mungia	JENDAURREKOA	BAI	
021033	NEKAZARITZARI LAGUNTZEKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
02104	BASO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
021041	BASOAK ZAINDU ETA ANTOLATZEKO ATALA. I. aldea	Zentroen arabera		
"	00500 Agirre Lehendakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07501 AG Abadiño	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07506 AG Berriz	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07508 AG Dima	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07509 AG Durango	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07511 AG Gernika	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07516 AG Igorre	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07525 AG Orduña	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07526 AG Orozko	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07530 AG Zeanuri	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07531 AG Zornotza	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07534 AG Areatza	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07541 AG Mallabia	GIZARTE IZAERA	BAI	
021042	BASOAK ZAINDU ETA ANTOLATZEKO ATALA. II. Aldea	Zentroen arabera		
"	00500 Agirre lehendakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	01000 Ganguren	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07503 A.G Arrigorriaga	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07511 AG Gernika	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07519 AG Lekeitio	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07520 AG Lezama	GIZARTE IZAERA	BAI	

"	07521 AG Markina	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07522 AG Meñaka	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07523 AG Mungia	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07532 AG Muxika	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07540 A.G Galdakao	GIZARTE IZAERA	BAI	
021043	BASOAK ZAINDU ETA ANTOLATZEKO ATALA. III. aldea	Zentroen arabera		
"	00500 Agirre lehendakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	02100 Vivero el Garmo	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07502 A.G Arcentales	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07505 A.G Balmaseda	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07510 A.G Galdames	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07512 A.G Gordexola	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07518 A.G Karrantza	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07524 A.G Muskiz	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07527 A.G Sopuerta	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07527 A.G Trucios	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07529 A.G Zalla	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07538 A.G Alonsotegi	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07539 A.G Abanto	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
021044	BASOEN BABES, ESPERIMENTAZIO ETA HOBEEKUNTZARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
02105	BALIABIDE NATURALAK, EHIZA, FAUNA ETA ARRANTZA KUDEATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	00500 Agirre lehndakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	01000 Ganguren	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07500 Agricultura general	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07503 A.G Arrigoriaga	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07505 A.G Balmaseda	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07509 A.G Durango	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07511 A.G Gernika	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07516 A.G Igorre	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07518 A.G Karrantza	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07519 A.G Lekeitio	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07520 A.G Lezama	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07521 A.G Markina	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07523 A.G Mungia	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07524 A.G Muskiz	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07525 A.G Orduña	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07529 A.G Zalla	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07530 A.G Zeanuri	GIZARTE IZAERA	BAI	
021051	EHIZA ETA IBAIETAKO ARRANTZA KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	00500 Agirre lehendakaria	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07511 A.G Gernika	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	07528 A.G Trucios	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
"	07529 A.G Zalla	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
021052	FAUNA BASATIAREN ETA ABERE ESPERIMENTAZIOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
03	GIZARTE EKINTZA SAILA			
031	ADMINISTRAZIOAREN ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA			
03101	ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
031011	ADMINISTRAZIO ETA ANTOLAKETA ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
031012	EKONOMIA ETA AURREKONTU ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
031013	LAGUNTZA ADMINISTRATIBOA EMATEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	

031014	PROZESUEN, AZTERKETEN ETA KALITATEAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
03102	ERAKUNDE JARDUEREN ETA GIZARTE PROIEKTUEN ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
031021	ERAKUNDE JARDUEREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
03103	IKUSKAPEN ETA KONTROL ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
031031	KONTROL ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
031032	IKUSKAPEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
032	GIZARTERATZEA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA			
03201	UMEEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
032011	HARRERA, EBALUAZIO ETA ORIENTAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
032012	FAMILIA HARRERAREN ETA ADOPZIOEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
03202	EMAKUMEAK BABESTEKO ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
032021	EMAKUMEEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
03203	GIZARTE INKLUSIOA SUSTATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
032031	PRESTAZIOEN, LAGUNTZEN ETA EBALUAZIOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
032032	GIZARTE INKLUSIORAKO ZENTRO ETA PROGRAMEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
033	PERTSONEN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEBASUNARI ARRETA ESKAINTZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA			
0331	PERTSONEN AUTONOMIA SUSTATZEKO ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	OROKORRA	EZ	
03311	ZENTROEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
033111	MENDEBASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ZENTROEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
033112	DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO ZENTROEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
03312	PRESTAZIOEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
033121	LAGUNTZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
033122	PRESTAZIOEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
03313	EBALUAZIO ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
033131	MENDEBASUNAREN EBALUAZIORAKO ETA ORIENTAZIORAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
033132	DESGAITASUNA EBALUATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
034	BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA			
04	KULTURA SAILA			
04001	ZERBITZU OROKORRAK	ZEHARKAKOA	BAI	
040011	AHOLKULARITZA TEKNIKOAREN ETA LANGILERIAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
040012	AURREKONTUEN ETA KUDEAKETAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
04002	AHOLKUAK EMATEKO ETA ARAUAK GARATZEKO KABINETEA	ZEHARKAKOA	BAI	
041	KIROL EN ETA GAZTERIAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA			
04101	GAZTERIA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
041011	GAZTERIA ARLOKO PLANGINTZARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
041012	GAZTEEN INFORMAZIOA ETA PARTE-HARTZEA BIDERATZEKO ATALA	Zentroen arabera		
"	07100 Errekalde zumarkalea	GIZARTE IZAERA	BAI	
"	03500 Orduñako aterpetxea	GIZARTE IZAERA	BAI	
04102	KIROL ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
041021	ESKOLA KIROLAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	

041022	KIROL FEDERATUAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
041023	UDAL KIROLAREN ETA KIROL AZPIEGITURAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
042	KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA			
04201	KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
042011	KONTSERBAZIOAKO ETA AHOLKULARITZA TEKNIKORAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
042012	ESKU-HARTZE ARKITEKTONIKOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
042013	FORU AGIRITEGI HISTORIKOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
04202	KULTUR EKINTZAKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
042021	KULTURA GARATU ETA ZABALTZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
04203	FORU LIBURUTEGIAREN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
042031	LIBURUZAIINTZA AHOLKULARITZARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
042032	FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK KUDEATZEKO ETA FORU LIBURUTEGIA SUSTATZEKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
043	EUSKARA ZUZENDARITZA NAGUSIA			
04301	EUSKARA ZERBITZUA	EUSKARA	BAI	
043011	HIZKUNTZA NORMALIZAZIO ATALA	EUSKARA	BAI	
043012	HIZKUNTZA GIZARTERATZEKO ATALA	EUSKARA	BAI	
043013	ITZULPEN, TERMINOLOGIA ETA HIZKUNTZ TEKNOLOGIAREN ATALA	EUSKARA	BAI	

05	OGASUN ETA FINANTZA SAILA			
0501	IDAZKARITZA OROKOR TEKNIKOAK	ZEHARKAKOAK	BAI	
05011	EKONOMIA AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOAK	BAI	BERRIA
050111	ERAKUNDEEN ARTEKO KONPROMISOEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
050112	EKONOMIA AZTERLANEN ATALA	ZEHARKAKOAK	BAI	BERRIA
05012	LEGE AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOAK	BAI	BERRIA
05013	ZERGA POLITIKAKO ZERBITZUA	OROKORRA	EZ	
050131	ZERGA INFORMATIKAREN ATALA	OROKORRA	EZ	
050132	ZERGA AZTERLANEN ATALA	OROKORRA	BAI	BERRIA
050133	ARAU GARAPENERAKO ATALA	OROKORRA	BAI	BERRIA
051	OGASUNEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA			
0511	ZERGAK KUDEATZEKO ETA ZERGADUNARI LAGUNTZEKO ZUZENDARIORDETZA	JENDAURREKOA	BAI	
05111	ZUZENEKO ZERGEN ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
051111	PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ERREKURTZOEN ETA INFORMAZIOAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051112	SOZIALTEEN GAINEKO ZERGAREN, EGOILIAR EZ DIRENEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ETA KONTURAKO ORDAINKETEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051113	OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051114	PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGAREN BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
05112	ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
051121	ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051122	BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051123	ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIAREN, IBILGAILUEN BIGARREN ESKUALDAKETAREN, ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGAREN ETA JOKOAREN GAINEKO ZERGA TASAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	

051124	FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIEN ETA HIDROKARBURO BATZUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GAINEKO ZERGAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
05113	ZENTSUAK KONTROLATZEKO ETA UDAL ZERGA KUDEATZEKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
051131	EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGAREN, BESTE SARRERA PUBLIKO BATZUEN ETA INFORMAZIO AITORPENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051132	ZERGA ZENTSUEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
051133	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051134	IDENTIFIKAZIO ETA EUSKARRIEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
05114	ZERGADUNARENTZAKO INFORMAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
"	00200 Azokako eraikina	JENDAURREKOA	BAI	
"	04400 Barakaldoko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	04500 Getxoko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	04600 Durangoko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	04700 Gernikako bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	04800 Balmasedako bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	07800 Basauriko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	08000 Portugaleteko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	08600 Mungiako bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
051141	ZERGA INFORMAZIOAREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051142	ERREGISTROAREN ETA JAKINARAZPENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051143	BULEGO DESZENTRALIZATUAK KOORDINATZEKO ATALA	Zentroen arabera		
"	00200 Azokako eraikina	JENDAURREKOA	BAI	
"	04400 Barakaldoko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	04500 Getxoko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	04600 Durangoko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	04700 Gernikako bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	04800 Balmasedako bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	07800 Basauriko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	08000 Portugaleteko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	08600 Mungiako bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
051144	ZERGADUNARENTZAKO TELEFONIA ETA TELEMATIKA ZERBITZUEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
0512	IKUSKAPENEN ZUZENDARIORDETZA	OROKORRA	EZ	
051201	BULEGO TEKNIKOA	OROKORRA	EZ	
05121	IKUSKARITZA KOORDINATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
051211	ZERGA DOKUMENTAZIOAREN ATALA	OROKORRA	EZ	
051212	ZERGA AGENTEEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
05122	PLANGINTZAREN ETA AUDITORIA INFORMATIKOAREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
05123	IKUSKAPEN JARDUEREN I. ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	EZ	
05124	IKUSKAPEN JARDUEREN II. ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	EZ	
0513	ZERGA-BILKETAKO ZUZENDARIORDETZA	JENDAURREKOA	EZ	
05131	ZERGA-BILKETAKO ZERBITZUA	Zentroen arabera		
"	00200 Azokako eraikina	JENDAURREKOA	BAI	
"	04400 Barakaldoko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	04800 Balmasedako bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
"	07800 Basauriko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	
"	08000 Portugaleteko bulegoa	JENDAURREKOA	BAI	BERRIA
051311	GERORAPENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
051312	ZERGA-BILKETA KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
051314	JARDUKETA BEREZIEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
05132	DIRUZAIINTZA ETA BERMEEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA

051321	SARREREN ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
051322	ORDAINKETEN ETA BERMEEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
05133	ZERGA-BILKETA IKUSKATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
051331	KONKURTSO PROZEDUREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
0514	KOORDINAZIORAKO ETA LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZUZENDARIORDETZA	OROKORRA	EZ	
05141	KOORDINAZIO ETA BARNE KONTROLERAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
05142	ZERGA DOKTRINAREN ZERBITZUA	OROKORRA	EZ	
052	<i>KATASTROAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA NAGUSIA</i>			
05201	ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA.	ZEHARKAKOA	BAI	
052011	GIZA BALIABIDEEN ETA PRESTAKUNTZAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
052012	EKONOMIA BALIABIDEEN ETA EROSKETEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
052013	MANTENTZE LANAK ETA ZERBITZU TEKNIKOAK BIDERATZEKO ATALA	OROKORRA	EZ	
05202	KOMUNIKAZIO, KALITATE ETA ANTOLAKETAKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
052021	KALITATE ETA ANTOLAKETAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
052022	KOMUNIKAZIO ETA ARGITALPENEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
05203	EUOPAR BATASUNEN FUNTSAK ETA POLITIKAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
052031	EUOPAR BATASUNEN FUNTSAK ETA POLITIKAK KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
05204	EUOPARI BURUZKO INFORMAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
052041	EUOPARI BURUZKO INFORMAZIO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
05205	KATASTRO ETA BALORAZIO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
052051	KATASTRO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
052052	BALORAZIO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
052053	KATASTROAREN INGURUKO AZTERKETAK, PROZEDURAK, INFORMAZIO SISTEMAK ETA LANKIDETZA BIDERATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
053	<i>FINANTZA, AURREKONTU ETA ONDAREAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA</i>			
05301	FINANTZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
053011	ZOR PUBLIKOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
053012	FINANTZA PLANGINTZAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
05302	ONDARE ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
053021	INBENTARIO ETA LAGUNTZA TEKNIKOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
053022	ARAUBIDE JURIDIKOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
0531	<i>AURREKONTUETARAKO ETA EKONOMIA KONTROLERAKO ZUZENDARIORDETZA</i>	OROKORRA	EZ	
05311	AURREKONTU ETA KONTABILITATE ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
053111	AURREKONTUAK GERTATU ETA KUDEATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
053112	AURREKONTUEN PLANGINTZA ETA AZTERKETARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
053113	KONTABILITATE ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
053114	KUDEAKETA KONTROLATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
05312	FISKALIZAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
053121	SARRERAK FISKALIZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
053122	GASTUAK FISKALIZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
053123	ORDAIKETAK ETA LIKIDAZIOAK FISKALIZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
05313	AUDITORIA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
053131	KANPO AUDITORIARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
053132	BARNE AUDITORIARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA

05314	LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
054	<i>FORU AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOA (T.E.A.F.)</i>			
0541	PRESIDENTEORDETZA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
05411	IDAZKARITZA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
054111	ADMINISTRAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
054112	PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (KIDETZA)	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
054113	ZUZENEKO BESTE ZERGA ITUNDUAK (KIDETZA)	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
054114	ZEHARKAKO ZERGA ITUNDUAK (KIDETZA)	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
054115	ZERGA-BILKETA ETA UDAL ZERGAK (KIDETZA)	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA

06	HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA			
06001	ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
060011	KONTRATAZIOAREN ETA GAI OROKORREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
060012	ANTOLAKETAREN ETA GIZA BALIABIDEEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
060013	ATAL JURIDIKOA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
06002	FINANTZAKETARAKO, PROGRAMAZIORAKO ETA INBERTSIOEN KONTROLERAKO ZERBITZUA	OROKORRA	EZ	
060021	PROGRAMAZIOAREN ETA EKONOMIA KUDEAKETAREN ATALA	OROKORRA	EZ	
061	GARRAIOEN ZUZENDARITZA NAGUSIA			
06101	GARRAIOAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
061011	EMAKIDA ETA IKUSKAPENEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
061012	SALGAI ETA BAIMENEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
06102	BIDAIARIEN GARRAIOA ANTOLATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
061021	AZTERLANEN ETA PLANGINTZAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
061022	GARRAIOA BIDERATU ETA KUDEATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
062	BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARITZA NAGUSIA			
06201	DESJABETZEEN ETA UKITURIKO ZERBITZUEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
062011	ADMINISTRAZIO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
062012	ATAL TEKNIKOA	GIZARTE IZAERA	BAI	
06202	PLANGINTZA ZERBITZUA	OROKORRA	EZ	
062021	ESKARIA KUDEATZEKO ATALA	OROKORRA	EZ	
062022	GARRAIOAREN TEKNOLOGIA EBALUATZEKO ATALA	OROKORRA	EZ	
062023	BIZKAIKO TUNELEN SEGURTASUNERAKO ATALA	OROKORRA	EZ	
06203	USTIAPEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
062031	USTIAPENEN ATAL JURIDIKOA	GIZARTE IZAERA	BAI	
06204	BIDEEN SEGURTASUNERAKO, HOBEKUNTZARAKO ETA MODERNIZAZIORAKO ZERBITZUA	OROKORRA	EZ	
062041	PROIEKTUEN ETA OBREN ATALA	OROKORRA	EZ	
062042	KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA ETA HITZARTURIKO INBERTSIOAK BIDERATZEKO ATALA	OROKORRA	EZ	
062043	BIDE SEGURTASUNAREN ATALA	OROKORRA	EZ	
0621	HERRI LANEN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	OROKORRA	EZ	
06211	PLANGINTZAREN ETA PROIEKTUEN ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
062111	PLANGINTZA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
062112	INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNERAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
06212	ERAIKUNTZA ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
062121	OBREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
062122	LAGUNTZA TEKNIKOAREN ATALA	OROKORRA	EZ	
0622	ERREPIDEEN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	OROKORRA	EZ	
06221	KONTSERBAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
062211	GAINEGITURA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
062212	AZPIEGITURA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
06222	TEKNOLOGIA ETA INBENTARIO ZERBITZUA	OROKORRA	EZ	
062221	INBENTARIO ETA AUSKULTAZIO ATALA	OROKORRA	EZ	
062222	ERREPIDE TEKNOLOGIAREN ATALA	OROKORRA	EZ	

07	LEHENDAKARITZA SAILA			
07001	IDAZKARITZA OROKORREKO UNITATEA	OROKORRA	BAI	BERRIA
07002	LEGE AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
071	FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA			
0711	FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	ZEHARKAKOA	EZ	
07111	LANGILEAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
071111	ORDAINSARI ARAUBIDEAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
071112	LAN HARREMANEN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
07112	ANTOLAKETA ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
071121	PLANGINTZAREN ETA AZTERLANEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
071122	ORDUTEGIA KONTROLATU ETA IKUSKATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
07113	LANGILEEN AUKERAKETARAKO ETA TREBAKUNTZARAKO ZERBITZUA	JENDAURREKOA	BAI	
071131	LANGILEEN AUKERAKETARAKO ETA LAN POLTSEN KUDEAKETARAKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
071132	TREBAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALERAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
07114	LANGILERIARI BURUZKO LEGE ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
071141	ARAUBIDE JURIDIKOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
071142	AHOLKUAK EMATEKO ETA ARAUAK GARATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
07115	LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ETA LAN OSASUNERAKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	Zentroen arabera	
"	00200 Azoka eraikina	ZEHARKAKOA	BAI	
"	05100 Uriosteko suhiltzaile etxea	ZEHARKAKOA	BAI	
"	09300 Merkataritza ganbara	ZEHARKAKOA	BAI	
071151	LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ATALA	ZEHARKAKOA	Zentroen arabera	
"	00100 Foru Jauregia	ZEHARKAKOA	BAI	
"	00200 Azoka eraikina	ZEHARKAKOA	BAI	
"	00500 Agirre lehendakaria	ZEHARKAKOA	BAI	
"	06400 Sota-Albia	ZEHARKAKOA	BAI	
"	07100 Errekalde zumarkalea	ZEHARKAKOA	BAI	
"	09100 Gizarte Ekintza, Ugasko 3	ZEHARKAKOA	BAI	
"	09300 Merkataritza ganbara	ZEHARKAKOA	BAI	
"	09600 Hirigintza, Errekalde zumarkalea	ZEHARKAKOA	BAI	
072	ADMINISTRAZIOAREN, ZERBITZUEN ETA BERRIKUNTZA PUBLIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA			
07201	ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
072011	ERREGISTROA ETA HERRITARRENGANAKO LAGUNTZA BIDERATZEKO ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
072012	IBILGAILUEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
072013	EKONOMIA ETA AURREKONTU ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
072014	FORU MOLDIZTEGIAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
072015	AHOLKUAK ETA LAGUNTZA ADMINISTRATIBOA EMATEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA
07202	KONTRATAZIO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
072021	OBRA ETA ZERBITZUEN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
072022	EROSKETA ETA HORNIDUREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
07203	ARKITEKTURAREN ETA ZERBITZU TEKNIKOEN ZERBITZUA	OROKORRA	EZ	
072031	MANTENTZE LANAK ETA ZERBITZU TEKNIKOAK BIDERATZEKO ATALA	Zentroen arabera		
"	00100 Foru Jauregia	ZEHARKAKOA	BAI	BERRIA

"	00200 Azoka eraikina	JENDAURREKOA	BAI	
"	07100 Errekalde zumarkalea	JENDAURREKOA	BAI	
"	07101 Iparragirre, 21	OROKORRA	EZ	
07204	BERRIKUNTZA PUBLIKORAKO ETA GOBERNANTZARAKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
072041	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
0721	SUHILTZAILE ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	GIZARTE IZAERA	EZ	
07211	SUHILTZAILE ZERBITZUA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
072111	SUHILTZAILE ATALA	Zentroen arabera		
"	05100 Uriosteko parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	BERRIA
"	05200 Artatzako parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	
"	05300 Basauriko parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	
"	05400 Balmasedako parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	BERRIA
"	05500 Gernikako parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	
"	05600 Iurretako parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	
"	05700 Markinako parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	
"	05800 Derioko parkea	GIZARTE-IZAERA	BAI	
072112	SUTEEN PREBENTZIORAKO ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
072113	ATAL TEKNIKO-ADMINISTRATIBOA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
073	<i>UDAL HARREMANETARAKO ETA HIRIGINTZARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA</i>			
073001	AHOLKULARITZA ETA ARAUAK BIDERATZEKO ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
073002	LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
07301	UDAL AZTERLANETARAKO ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMIA LAGUNTZARAKO ZERBITZUA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
073011	EKONOMIA LAGUNTZARAKO ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
073012	UDAL AZTERLANEN ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
07302	HIRIGINTZAKO LEGE ZERBITZUA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
073021	KOORDINAZIO ADMINISTRATIBORAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
073022	KUDEAKETA ETA EKONOMIA AHOLKULARITZA BIDERATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
07303	HIRIGINTZA PLANGINTZARAKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
073031	UDAL PLANGINTZARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
073032	KARTOGRAFIA ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
08	<i>EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA</i>			
08001	ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
080011	AURREKONTUEN KOORDINAZIORAKO ETA EKONOMIARAKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
080012	ANTOLAKETA SISTEMEN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
081	<i>ENPRESAK ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA</i>			
08101	AZPIEGITURETARAKO ZERBITZUA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
081011	AZPIEGITURETARAKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
08102	ENPLEGUA ETA TALENTUA SUSTATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
081021	TREBAKUNTZA ETA TALENTUA SUSTATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
081022	ENPLEGURAKO GAITASUNA SUSTATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
0811	EKONOMIA SUSTATZEKO ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA			
08111	ENPRESAK SUSTATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
081111	ENPRESA EKIMEN BERRIAK BULTZATZEKO ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
08112	BERRIKUNTZA ZERBITZUA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
081121	BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	

081122	ENPRESA BERRIKUNTZA BULTZATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
080012	ANTOLAKETA-SISTEMEN ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
08102	ENPRESAK SUSTATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
082	TURISMORAKO ETA KANPO SUSTAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA			
08201	KANPO HARREMANETARAKO ETA LANKIDETZARAKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
082011	LANKIDETZARAKO ETA KANPO SUSTAPENERAKO ATALA	IZAARTE IZAERA	BAI	
082012	INFORMAZIO EGITUREN ATALA	JENDAURREKOA	BAI	
09	INGURUMEN SAILA			
09001	ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
090011	GIZA BALIABIDEEN ETA ANTOLAKETAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
090012	ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA KONTRATAZIOAREN ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
09002	EKONOMIA ETA AURREKONTUAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	ZEHARKAKOA	BAI	
090021	EKONOMIA ETA AURREKONTUAK KUDEATZEKO ATALA	ZEHARKAKOA	BAI	
091	INGURUMENEN ZUZENDARITZA NAGUSIA			
09101	INGURUMENAREN KALITATEA ZAIATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
091011	INGURUMENEN PREBENTZIOAREN ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
091012	INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOAREN ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	BERRIA
09102	NATURA ONDAREA ZAIATZEKO ZERBITZUA	GIZARTE IZAERA	BAI	
091021	BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA ZAIATZEKO ATALA	GIZARTE IZAERA	BAI	
091022	HONDARTZEN ATALA	GIZARTE-IZAERA	BAI	
72111	4007	133	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2017/12/31
72111	4007	137	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2017/12/31
72111	4007	155	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	158	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	161	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	162	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	165	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	167	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	177	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	179	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	180	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	184	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2017/12/31
72111	4007	185	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	189	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	201	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	204	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	205	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2017/12/31
72111	4007	207	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	209	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31

72111	4007	216	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2015/12/31
72111	4007	217	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2016/12/31
72111	4007	220	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	221	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	222	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	228	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	230	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	235	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	242	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	244	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	252	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	254	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2017/12/31
72111	4007	261	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	262	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	263	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2015/12/31
72111	4007	267	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	276	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	280	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	281	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	290	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	291	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	332	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	334	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	337	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	341	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	345	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	346	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	347	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2013/12/31
72111	4007	356	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2017/12/31
72111	4007	358	SUHILTAILE-GIDARIA	2	2017/12/31
72011	4016	3	TELEFONISTA	3	2013/12/31
72011	4016	5	TELEFONISTA	3	2013/12/31
72011	4016	6	TELEFONISTA	3	2017/12/31
72011	4016	7	TELEFONISTA	3	2013/12/31
72011	4016	9	TELEFONISTA	3	2017/12/31
72011	4016	11	TELEFONISTA	3	2013/12/31
72011	4016	14	TELEFONISTA	3	2017/12/31
72011	4016	15	TELEFONISTA	3	2013/12/31
72111	4028	1	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	2	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	3	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2013/12/31
72111	4028	6	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	7	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	9	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	10	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	11	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2013/12/31
72111	4028	12	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	16	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	18	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	19	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	20	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	21	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31

72111	4028	22	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	23	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	24	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	28	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	30	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	31	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	32	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	33	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	34	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	35	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	36	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	37	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	46	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	47	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	48	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	49	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	51	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	53	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	54	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	55	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	57	SU ITZALTZE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	61	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	62	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	63	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	64	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	66	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	67	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
72111	4028	68	SUHILTAILE ZERBITZUKO KABOA	3	2017/12/31
51134	4072	15	PANTAILAKO IDENTIFIKATZAILEA	2	2014/12/31
6203	4324	8	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2016/12/31
6203	4324	10	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2015/12/31
6203	4324	21	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
62211	4324	27	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2016/12/31
62212	4324	2	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
62212	4324	7	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
62212	4324	11	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2016/12/31
62212	4324	16	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
62212	4324	17	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2014/12/31
62212	4324	25	ERREPIDEEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
61011	4360	3	GARRAIOEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
61011	4360	4	GARRAIOEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
61011	4360	5	GARRAIOEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
61011	4360	6	GARRAIOEN IKUSKARITZAKO LAGUNTAILEA	2	2013/12/31
21041	4605	12	ZAINTALDEKO BASOZAINA	3	2017/12/31
60012	4721	1	IBILGAILUEN ARDURA DUEN ALGUNTAILEA	2	2013/12/31
2012	4746	482	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTAILEA	3	2013/12/31
2103	4746	315	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTAILEA	3	2013/12/31
2104	4746	468	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTAILEA	3	2017/12/31
3102	4746	536	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTAILEA	3	2017/12/31

4201	4746	160	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2016/12/31
6211	4746	331	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2016/12/31
8101	4746	370	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
21051	4746	147	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2015/12/31
31011	4746	67	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
31012	4746	61	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
31013	4746	476	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2016/12/31
40011	4746	153	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2017/12/31
40011	4746	321	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2015/12/31
41011	4746	154	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2013/12/31
42012	4746	159	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2014/12/31
42032	4746	44	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2013/12/31
51141	4746	484	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2017/12/31
51141	4746	486	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2013/12/31
51321	4746	488	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
52011	4746	297	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2015/12/31
54111	4746	83	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
54112	4746	298	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2014/12/31
61011	4746	12	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2014/12/31
61011	4746	354	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
61012	4746	483	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2013/12/31
71132	4746	454	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2017/12/31
72011	4746	495	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3	2017/12/31
72013	4746	492	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
81021	4746	258	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2017/12/31
91022	4746	51	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
9202	4746	368	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	2016/12/31
42032	4873	11	AGIRITEGI, MUSEO ETA LIBURUTEGIETAKO LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31
62012	5500	6	TOPOGRAFIAKO LAGUNTZAILEA	2	2013/12/31

41012	5537	1	NAZIOARTEKO ATERPETXEKO JAGOLE-GARBITZAILEA	2	2013/12/31
4203	5720	1	ARGITALPENEN UNITATEKO BEHARGINA	2	2013/12/31
4203	5720	2	ARGITALPENEN UNITATEKO BEHARGINA	2	2017/12/31
4201	5747	144	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2017/12/31
4203	5747	145	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31
6001	5747	136	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31
6001	5747	140	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31
8001	5747	139	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2017/12/31
31011	5747	137	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2017/12/31
31011	5747	143	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31
52011	5747	134	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31
52011	5747	142	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31
62012	5747	141	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31
72014	5747	28	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2016/12/31
72031	5747	149	FORU ALDUNDIKO MENPEKOA	2	2013/12/31

Ondorengo laukian laburbiltzen ditugu derrigortasun data berrien kopuruak eta portzentaiak, sailez sail.

Sailak / Departamentos	Nuevas fec. precep./ D.d berriak	Fec. Precep.en 2013 / D.d. dutenak 2013an	Saileko ehunekoa (2013)	Total fec. precep 2017/ D.d guztira 2017an	Total puestos/ Lanpostuak guztira ¹	Porcentaje del departamento / Saileko % (2017)	Comparación con 2013 / 2013ko %ekin alderatuz
Ahaldun Nagusiari laguntzeko Unitatea	0	2	%40,00	2	5	%40,00	%0,00
Nekazaritza Saila	34	177	%62,94	211	284	%74,29	%11,35
Gizarte Ekintza Saila	23	345	%90,00	368	386	%95,33	%05,33
Kultura Saila	33	155	%74,88	188	206	%91,26	%16,38
Ogasun eta Finantza Saila	185	655	%60,79	840	1056	%79,54	%18,75
Herri Lan eta Garraio Saila	54	104	%36,84	158	265	%59,62	%22,78
Lehendakaritza Saila	191	396	%52,05	587	754	%77,85	%25,80
Ekonomia Sustatzeko Saila	7	81	%81,19	88	100	%88,00	%06,81
Ingurumen Saila	9	60	%72,67	69	83	%83,13	%10,46
Bizkaiko Foru Aldundi osoa	536	1975	%62,44	2511	3139	%79,99	%17,55

¹ Lanpostuak guztira, zuzendariak eta FAEAko lehendakaria alde batera utzita.

5. HIZKUNTZA TREBAKUNTZAKO PLANA

Hizkuntza Trebakuntzako Planak bi eratako jarduera-egitasmoak zehazten ditu: hizkuntza gaitasuna lortzera zuzentzen dena eta euskara lan eta zerbitzu hizkuntza ere izan dadin trebatze eta sustatzera bideratzen dena.

5.1 HIZKUNTZA GAITASUNA LORTZEKO JARDUERA EGITASMOA

5.1.1. Xedea

Bizkaiko Foru Aldundiko langileen hizkuntza gaitasuna gehitu eta hobetzea da jarduera-egitasmo honen xedea. Hizkuntza gaitasuna euskara-ikastaroen bidez lortzen da. Ikastaro horiek hainbat modulutan banatuta daude, moduluen trinkotasunaren arabera, eta Hizkuntza Normalizaziorako Planean ezarritako hizkuntza-eskakizunak gainditzeko zehaztuta daude.

5.1.2. Nori zuzenduta dago plan hau?

Aurreko atalean adierazi dugunez, Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei dago zuzenduta plan hau. Hala ere, Aldundiko langile guztiek ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta horren ondorioz, aukerak eta lehentasunak ezberdinak izan behar dira, langile bakoitzak duen kontratu-motaren arabera eta lanpostu bakoitzak ezarria duen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datarekiko egoeraren arabera.

Bi egoera horiek kontuan harturik, eta hizkuntza-trebakuntzako ikastaroen eskaintza antolatu nahian, Aldundiko langileak multzo edo talde hauetan banatu dira:

I. taldea:

Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkoa izan ala ez, egiaztaturik ez duten dedikaziorik gabeko Aldundiko langileak izan eta Bizkaiko Foru Aldundiarekiko kontratu-mota hauetariko bat dutenak: karrerako funtzionarioak, edozein taldetakoak izanik (90-94); muga gabeko lan-kontratu arrunta dutenak (1); eta beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioak (85-89).

Berez dagokien hizkuntza-eskakizuna beteta eduki arren, goragoko beste hizkuntza-eskakizun bat ezarri zaien eta hizkuntza-eskakizun hori egiaztaturik ez duten (nahiz eta aurrekoa egiaztatuta edukitzeagatik berria betetzetik salbuetsita egon) dedikaziorik gabeko Aldundiko langileak, betiere Bizkaiko Foru Aldundiarekiko kontratu-mota hauetariko bat dutelarik: karrerako

funtzionarioak, edozein taldetakoak izanik (90-94); muga gabeko lan-kontratu arrunta dutenak (1) eta beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioak (85-89).

II. taldea:

Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkoa izan ala ez, egiaztaturik duten dedikaziorik gabeko Aldundiko langileak izan eta Bizkaiko Foru Aldundiarekiko kontratu-mota hauetariko bat dutenak: karrerako funtzionarioak, edozein taldetakoak izanik (90-94); muga gabeko lan-kontratu arruntekoak (1); eta beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioak (85-89), baina I. taldearen barruan ez daudenak.

III. taldea:

Bitarteko funtzionarioak, mota horretarako edozein taldetakoak izanik (70-74), ordezkapeneko bitarteko funtzionarioak (50) eta (16), minusbaliatuen aldi baterako kontratua duten pertsonak (2), zatikako erretiroagatik txandakako lansaio osoko kontratua duten pertsonak (38), eta beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioak izan eta Bizkaiko Foru Aldundian zerbitzugintzako egoeran daudenak (95-97), betiere derrigortasun data ezarria badute, edota administrazio atal elebidun batean kokatuta badaude.

IV. taldea:

Lansaioa murrizteagatik zatikako muga gabeko kontratua duten pertsonak (23), langile finkoak edo txandakako aldi baterako kontratu finkoko langileak (21) eta (18), zatikako erretiroagatik zatikako aldi zehatz baterako kontratua duten pertsonak (34), zatikako erretiroagatik ordezkapeneko lansaio osoko kontratua duten pertsonak (38), hizkuntza-trebakuntza pertsonalizatuan sartu nahi ez diren eta behin-behineko kontratua duten langileak (63), bitarteko funtzionarioak, bitarteko funtzionarioen taldeetariko edozeinetan daudenak (70-74), ordezkapeneko bitarteko funtzionarioak (50) eta (16), eta beste administrazio batzuetakoak izanik Bizkaiko Foru Aldundian zerbitzugintzan dauden karrerako funtzionarioak (95-97), betiere III. taldean sartuta ez badaude eta, gainera, dedikaziorik ez badute.

V. taldea:

Dedikazioa duten langile guztiak.

Aurreko atalean aipatutako kontratu-motetariko bat ez duten gainerako langileek ezin izango diote ikastaroen eskaintzari heldu.

Salbuespen legez, beren taldeko ikastaroetara joateko ezintasuna behar bezala egiaztatzen duten langileek, beste talde batzuetako ikastaroetara joateko eskabidea egin ahal izango dute, baina Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren baimena eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren adostasuna jaso beharko dute.

Nolanahi ere, etorkizunean sor daitezkeen kontratu-mota ezberdinen bidez kontratatutako pertsonak talde batean edo bestean sartuko dira, berez egin zaien kontratu-motaren ezaugarri berezien arabera, kontratuaren iraupenaren arabera, prestazioa gauzatu behar den urteko sasoiaren arabera eta kontratazioak ukitutako unitatearen zuzeneko antolaketan eragin dezakeen beste edozein ezaugarriren arabera.

Ondoren zerrendatuko diren ikastaroen eskaintza betiere Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan dauden aurrekontuetako zuzkidurei lotuta egongo denez gero, ikastaro horiek finantzatzeko dauden ekonomi baliabideak une bateko ikastaro-eskariari erantzuteko nahikoak ez direnean, hurrengo lehentasun-hurrenkerari jarraituz egingo da ikastaroetako langileen onarpena:

- 1) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzen dituzten karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.
- 2) Dedikazioa duten karrerako funtzionarioak, d.d. eduki zein eduki ez.
- 3) Derrigorrezkotasunik gabeko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzen dituzten karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.

Amatasun eta aitatasun, babes eta adopzioagatiko lizentzia-bajak. Egoera horietariko batean dauden langileek, trebakuntzako bestelako ikastaroekin gertatu ohi denez, Foru Aldundiaren gainerako trebakuntza-ikastaroetarako baldintza beretan egin ahal izango dituzte euskara-ikastaroak.

5.2. IKASTAROEN ESKAINTZA OROKORRA.

Bizkaiko Foru Aldundiak bere langileei egiten dien ikastaroen eskaintza, HAEEK onartutako ikastaro-moten araberakoa izango da. Nolanahi ere, foru-langileek ikastaroen eskaintzaz baliatu ahal izango dira, baldin eta esleitu zaien ordu-kredituan aldeko saldoa badute.

5.2.1. Ikasturte osoko ikastaroak

5.2.1.1. Barnetegiko ikastaroak

Barnetegiko ikastaro hauek HAEEK zehaztutako barnetegietan egin daitezke.

Hartzaileak:

I eta II. taldeen barruko langileak. Ikastaro-mota honi heldu ahal izateko, nahitaezkoa izango da 3. urratsa egiaztaturik edukitzea.

II. taldeko langileak aukera honetaz baliatuko dira, baldin eta 3. HE egiaztaturik ez badute eta ordu-kredituan aldeko saldoa izanez gero.

Baldintzak

Ikastaro-mota hau barnetegi batean egin beharko da oso-osorik; beraz, ez da bestelako modalitatearik (pentsio erdia, esaterako) onartuko.

Ikastaroek lauhileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera), eta ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere, euskaltegiaren egutegian finkatutakoak izango dira.

Ikastaro hauetarako izena emateko, nahitaezkoa izango da euskalduntzeko 3. urratsa gaindituta edukitzea.

Erakundeek beraiek (Aldundiak eta HAEEK) ordainduko dituzte matrikula eta egonaldiko gastuak.

Joan-etorriek sortutako gastuetarako, astean behineko bidaia bat (joan-etorria) baino ez da ordainduko. Langileak, hilaren bukaeran, hil horri dagozkion joan-etorriek sortutako gastuen likidazioa aurkeztu beharko dio bere saileko zerbitzu orokorretako buruari; likidazioak Hizkuntz Normalizazio Atalaren ontzat emana (O.E.) eduki behar du.

5.2.1.2. Bost orduko ikastaroak

Behin mailaketa frogak egin ondoren, HAEEK esleituko dio bakoitzari zein euskaltegitan egin behar duen ikastaroa.

Hartzaileak:

I eta II. taldeen barruan dauden langileak. II. taldeko langileak aukera honetaz baliatuko dira, baldin eta 3. HE egiaztaturik ez badute eta ordu-kredituan aldeko saldoa izanez gero.

Baldintzak

Ikastaro hauetara doazen langileak lansaiosotik salbuetsita egongo dira; beraz, ikasturteak iraun bitartean ikastarora doazenek ez dute fitxatu behar izango, baina erabateko puntualtasuna gorde beharko dute eta ezin izango dute malgutasunez jokatu ikastarora sartu eta ikastarotik ateratzeko orduan.

Ikastaroek lauhileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera), eta HAEEK zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera eta baita jaiegunak ere.

5.2.1.3 Lan-ordutegiaren barruko goizeko ikastaroak

Behin mailaketa frogak egin ondoren, HAEEK esleituko dio bakoitzari zein euskaltegitan egin behar duen ikastaroa.

Hartzaileak:

I, II, III eta V. taldeen barruan dauden langileak. II. eta III. taldeetako langileak aukera honetaz baliatuko dira, baldin eta 3. HE egiaztaturik ez badute eta ordu-kredituan aldeko saldoa izanez gero.

Baldintzak

Ikastaro hauetara doazen Aldundiko langileek fitxatu egin beharko dute lanlekura iristean, euskaltegitik itzuli ondoren.

Ikastaroaren ordutegia: 8:00etatik 10:00etara

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera) eta IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera eta baita jaiegunak ere.

5.2.1.4 . Eguneko bi ordu eta astean 10 orduko ikastaroak, arratsaldez

Ikastaro hauek homologatutako edozein euskaltegitan, publikoa nahiz pribatua izan, egin daitezke, eta interesatuak berak aukeratuko du zeinetan egin.

Hartzaileak:

I, II, III, IV eta V. taldeen barruan dauden langileak.

Baldintzak

Ikastaro-mota honetan interesatuta dauden pertsonak lan-ordutegitik kanpoko orduetan egin beharko dute ikastaroa.

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera). Ikastaroaren hasiera eta amaierako datak eta ikastaroaren egutegia aukeratutako euskaltegiak dituenak izango dira.

Ikastaro mota honetan ez dago ordutegiaren malgutasunik.

Langileen ordutegia:

- **Astean arratsalde batean lan egiten duten** langileentzat: 8:00etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldi (ekainean), lansaioa 8:30etik 13:30era izango da.

Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude.

- **Goizez bakarrik lan egiten duten** langileentzat: 7:40tik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:00etatik 13:00etara izango da.
- **Zatitutako lansaioko langileentzat:** 6 ordu eta 20 minutuko lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:30etik 13:30era izango da.

Librantza horiek eskola-egunei dagozkie, hau da, eskolarik ez dagoen egunetan edo eskolara joaten ez den egunetan ohiko lansaioa bete beharko da lanean.

5.2.1.5. Eguneko bi ordu eta astean 8 orduko ikastaroak, arratsaldez

Ikastaro hauek homologatutako edozein euskaltegitan, publikoa nahiz pribatua izan, egin daitezke, eta interesatuak berak aukeratuko du zeinetan egin.

Hartzaileak:

I, II, III, IV eta V. taldeen barruan dauden langileak.

Baldintzak

Ikastaro-mota honetan interesatuta dauden pertsonak lan-ordutegitik kanpoko orduetan egin beharko dute ikastaroa.

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera). Ikastaroaren hasiera eta amaierako datak eta ikastaroaren egutegia aukeratutako euskaltegiak dituenak izango dira.

Interesatuak jakinarazi beharko dio Hizkuntz Normalizazioari asteko zein egunetan ez duen eskolarik izango.

Ikastaro mota honetan ez dago ordutegiaren malgutasunik.

Langileen ordutegia:

- **Astean arratsalde batean lan egiten duten** langileentzat: 8:00etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:30etik 13:30era izango da.
Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude.
- **Goizez bakarrik lan egiten duten** langileentzat: 7:40tik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:00etatik 13:00etara izango da.
- **Zatitutako lansaioko langileentzat:** 6 ordu eta 20 minutuko lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:30etik 13:30era izango da.
- Librantza horiek eskola-egunei dagozkie, hau da, eskolarik ez dagoen egunetan edo eskolara joaten ez den egunetan ohiko lansaioa bete beharko da lanean.

5.2.1.6. Autoikaskuntza ikastaroak

Ikastaro hauek euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean, edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean egin ahal izango dira.

Hartzaileak:

Ezaugarri bereziak dituen lana edo txandakako lansaioa egiten duten langileak, betiere Plangintzaren V. Plan hau dela bide, eskubidearen arabera dagozkien ikastaroetara, beren administrazio egoeratik, joan nahi ez badute.

Baldintzak

Autoikaskuntzako ikastaroak: lanorduz kanpo egin beharko dira, eta gutxienez **190** orduko iraupena izan behar dute.

5.2.1.7. 4. HE prestatzeko ikastaroa

HAEEren geletan edo erakunde horrek zehaztuko duen tokian emango da ikastaro hau.

Hartzaileak:

3.HE edo 4.HE ezarria duten lanpostuak betetzen dituzten foru langileak, berdin dio hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa den edo ez.

Betebeharrak

Ikastaro-mota hau egin ahal izateko, 3. HE egiaztaturik eduki beharko da edo horren baliokide den agiriren baten jabe izan beharko da. Horrez gain, hautagaiek sarbideko ariketa bat egin beharko dute. Ikastaroan ez da onartuko ariketa hori gainditu ez duen inor.

Baldintzak

Astean bina orduko lau klase emango dira, astelehenetik ostegunera.

Matrikulatutako pertsonak 4. HE edo 3. HE, bata zein bestea, ezarrita duen lanpostua betetzen badu, ordutegi honen barruan egin ahal izango du ikastaroa: 8:00etatik 10:00etara edo 15:30etik 17:30era.

Ikastaroa urritik ekainera bitartekoa izango da. HAEE izango da ikastaroaren hasiera eta ikastaroaren egutegia zehaztuko dituena.

15:30etik 17:30era bitarteko ordutegiko ikastaroetara doazen langileen lan-ordutegia hauxe izango da:

- **Astean arratsalde batean lan egiten duten** langileentzat: 8:00etatik 14:00etarako lansaioa.
Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude.
- **Goizez bakarrik lan egiten duten** langileentzat: 7:40tik 14:00etarako lansaioa.

- **Zatitutako lansaioko langileentzat.** 6 ordu eta 20 minutuko lansaioa.

5.2.2. Udako ikastaroak

5.2.2.1. Barnetegiko ikastaroak

Xedea eta hartzaileak

Ikasleek ikasturtean zehar eskuratu dituzten ezagupenak finkatu ahal izatea da ikastaro hauen xedea. Beraz, edozein langile joan daiteke ikastaro hauetara, betiere ikasturtean zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren Planaren barruko euskara-ikastaroren bat egin badu.

Barnetegiko ikastaroen ezaugarriak

Ikastaro-mota hau barnetegi batean egin beharko da oso-osorik; beraz, ez da bestelako modalitaterik (pentsio erdia, esaterako) ez eta asteburuetan etxera etortzerik onartuko.

Uztail, abuztu edo irailean egingo dira ikastaro hauek.

HABEk homologatutako ikastaroak izan behar dira.

Euskaltegi pribatuek edo homologatutako pribatuek antolatutakoak izan behar dira.

13 edo 15 eguneko iraupena izango dute, gutxienez 90 eskola-ordu.

Baldintzak

Ikastaro hauetara doazenak lanetik aske geratuko dira epe horrek iraun bitartean.

Planaren barruan udako barnetegi bateko ikastaro bat baino ezin izango da egin.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta HAEEK ordainduko dituzte matrikularen eta egonaldiaren gastuak.

Joan-etorriek sortutako gastuetarako, barnetegiko ikastaro bakoitzeko bidaia bakarra (joan-etorria) ordainduko da. Aldundiko langileak, barnetegirako joan-etorriek sortutako gastuen likidazioa bere saileko zerbitzu orokorretako buruari aurkeztu beharko dio; likidazioak Hizkuntz Normalizazio Atalaren ontzat emana (O.E.) eduki behar du.

5.2.2.2. Udako ikastaro trinkoak

Hartzaileak:

III eta IV. taldeetako langileak.

Ikastaro trinkoen ezaugarriak.

Uztail, abuztu edo irailean egingo dira ikastaro hauek.

HABEk homologatutako ikastaroak izan behar dira.

Euskaltegi publikoek edo homologatutako pribatuek antolatutakoak izan behar dira. Ikastaroaren iraupena: hilabetekoa, egunean bost ordu eta hilean 100 eskola-ordu.

Baldintzak

Ikastaroak lan-orduetatik kanpo izango dira.

Ikastaro hauetara doazen langileen lan-ordutegia: 8:30etik 13:30era.

5.3. SU ITZALTZE ETA SALBAMENDU ZERBITZURAKO ETA BESTE KOLEKTIBO BATZUETARAKO IKASTAROEN ESKAINTZA OROKORRA

Suhiltzaile-etxeetako langileen izaera ez-administratiboan berezitasuna dela eta, Hizkuntza Trebakuntzako Plana berezitasun horietara egokitu behar da zerbitzu honetan.

5.3.1. Hartzaileak

Aldundiko gainerako funtzionarioen lan-ordutegi normalizatuaz bestelako lan-ordutegia duten Su Itzaltze, Salbamendu eta Sorospen Zerbitzuko langileak dira, karrerako funtzionarioak izan nahiz bitarteko funtzionarioak izan. Bitarteko funtzionarioei dagokienez, horiek Bizkaiko Foru Aldundiarekin duten kontratu-harremana gutxienez egutegiko urtebetekoa dela egiaztatu beharko dute.

5.3.2. Ikasturte osoko ikastaroak

5.3.2.1. Eguneko bi ordu eta astean hamar orduko ikastaroak

Ikastaro hauek homologatutako edozein euskaltegitan, publikoa nahiz pribatua izan, egin daitezke, eta interesatuak berak aukeratuko du zeinetan egin.

Hartzaileak:

- Karrerako funtzionarioak.
- Bitarteko funtzionarioak.

Baldintzak

Ikastaro-mota honetan interesatuta dauden pertsonak lan-ordutegitik kanpoko orduetan egin beharko dute ikastaroa.

Langile bakoitzaren lan-egutegiaren arabera, langileek zaintza-eguna dutenean, lantokira joan behar dute eta dagokien lansaio osoa bete beharko dute.

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera). Ikastaroaren hasiera eta amaierako datak eta ikastaroaren egutegia aukeratutako euskaltegiak dituenak izango dira.

Librantzak

24 orduko txandakako langileek ordu 1 konpentsatuko dute ikastaroaren eskola-egun bakoitzeko, eta konpentsazio hori 24 orduko kopurura arte meta daiteke, horrek zaintza bat libratzeko aukera emango dielarik. Zaintza hori, halere, zerbitzuaren beharizanen baldintzapean egongo da, baina beti ikastaroan zehar (urritik ekainera) libratu beharko da.

Komunikazio-zentroko langileek ordu 1 konpentsatuko dute ikastaroaren eskola-egun bakoitzeko, eta konpentsazio hori egutegiaren lansaio osoa osatu arte meta daiteke. Librantzako lansaio hori, halere, zerbitzuaren beharizanen baldintzapean egongo da.

Egutegi mistoa duten langileek (24 orduko lansaioak eta goizeko lansaioak) ordu 1 konpentsatuko dute ikastaroaren eskola-egun bakoitzeko, eta konpentsazio hori egutegiaren lansaio osoa osatu arte meta daiteke. Lansaio hori, halere, goizeko lansaioan bakarrik har daiteke.

Aterpetxeetako langileek ordu 1 konpentsatuko dute ikastaroaren eskola-egun bakoitzeko, eta konpentsazio hori egutegiaren lansaio osoa osatu arte meta daiteke. Lansaio hori, halere, goizekoa soilik izan daiteke.

5.3.2.2. Autoikaskuntza ikastaroak

Ikastaro hauek euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean egin ahal izango dira.

Hartzaileak:

- Karrerako funtzionarioak.
- Bitarteko funtzionarioak.

Baldintzak

Autoikaskuntzako ikastaroak: lanorduz kanpo egin beharko dira, eta gutxienez **190** orduko iraupena izan behar dute.

5.3.3. Udako ikastaroak

5.3.3.1. Barnetegiko ikastaroak

Xedea eta hartzaileak

Ikasleek ikasturtean zehar eskuratu dituzten ezagupenak finkatu ahal izatea da ikastaro hauen xedea. Beraz, edozein langile joan daiteke ikastaro hauetara, betiere ikasturtean zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren Planaren barruko euskara-ikastaroren bat egin badu.

Barnetegiko ikastaroen ezaugarriak

Ikastaro-mota hau barnetegi batean egin beharko da oso-osorik; beraz, ez da bestelako modaliterik (pentsio erdia, esaterako) ez eta asteburuetan etxera etortzerik onartuko.

Uztail, abuztu edo irailean egingo dira ikastaro hauek.

HABEk homologatutako ikastaroak izan behar dira.

Euskaltegi pribatuek edo homologatutako pribatuek antolatutakoak izan behar dira.

13 edo 15 eguneko iraupena izango dute, gutxienez 90 eskola-ordu.

Baldintzak

- Ikastaro hauetara doazenak lanetik aske geratuko dira epe horrek iraun bitartean.
- Planaren barruan, udako barnetegi-ikastaro bat baino ezin izango da egin.
- Erakundeek (Aldundiak eta HAEEK) ordainduko dituzte matrikula eta egonaldi-gastuak.
- Joan-etorriek sortutako gastuetarako, barnetegiko ikastaro bakoitzeko bidaia bakarra (joan-etorria) ordainduko da. Aldundiko langileak, barnetegirako joan-etorriek sortutako gastuen likidazioa Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko buruari aurkeztu beharko dio; likidazioak Hizkuntz Normalizazio Atalaren ontzat emana (O.E.) eduki behar du.

Librantza

- o Barnetegiaren iraunaldiaren %50a Bizkaiko Foru Aldundiko langilearen pentzutari izango da. Era honetara gauzatuko da librantza hori:
- o Batetik, 24 orduko txandetako langileei dagokienez: barnetegiaren iraunaldiaren egutegiko egun-kopuruaren erdia konpentsatuko zaie, eguneko 8 ordu eta 7 minutu. Udako barnetegiaren aukera interesatuaren oporraldiaren barruan gauzatu beharko da.
- o Bestetik, komunikazio zentroko langileei eta egutegi mistoa duten langileei dagokienez: barnetegiaren iraunaldiaren egutegiko egun-kopuruaren erdia konpentsatuko zaie, eguneko 8 ordu. Udako barnetegiaren aukera interesatuaren oporraldiaren barruan gauzatu beharko da.

5.4 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO JARDUERA EGITASMOA

V. plangintzaldi honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzada egokia ematen jarraitu nahi du, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza eta harreman-hizkuntza ere izan dadin.

Hizkuntza gaitasuna izateak edo lanpostuaren HE egiaztatuta izateak berez ez du esan nahi euskara administrazio-atal baten lan-esparruan erabiltzen denik. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, komenigarria da baldintza egokiak sortzen eta langileei beharrezko bitartekoak ematen jarraitzea, langileek haien eginkizunak euskaraz ere egiteko gai izan daitezen, egoerak hala eskatzen duenean.

BFAk, euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen erabilera sustatzera bideratutako bitartekoak banatzeko, lehentasuna emango die arrakasta izateko aukera gehien duten unitateei. Egoera soziolinguistikoa, lan-baldintzak, ataleko buruen lidergoa eta ataleko langileen borondatea baloratuko dira.

Administrazio-atal guztietan euskararen erabilera eraginkortasunez bultzatzeko egoera egokia ez dagoenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak lau jarduera-ildo antolatu ditu. Jarraian jaso ditugu, lehentasun ordenaren arabera:

- EraMia
- Administrazio-ataleko modulua
- Modulu presentziala
- On Line modulua

5.4.1. EraMia

5.4.1.1. Xedea

Kasuan kasuko administrazio-atalari azpiegitura egokiak eta langileei behar den besteko hizkuntza gaitasuna ematea haien eginkizun eta zereginak ahoz eta idatziz euskaraz garatu ahal izateko, barruko eta kanpoko harremanetan.

5.4.1.2. Norentzat

Lan-hizkuntza euskara izatea adosten duten administrazio-atal guztiak.

5.4.1.3. Baldintzak

Administrazio-ataleko kide guztiek behar den besteko euskara maila egiaztatuta izatea, gutxienez 2. HE.

Administrazio-ataleko kide guztiak ados egotea euskara lan-esparruan erabiltzeko.

5.4.1.4. Helburuak

Aurreko baldintzak betetzen badira eta araudia onartzen bada, Hizkuntz Normalizazio Atalak ataleko egoera soziolinguistikoaren eta lan egoeraren azterketa egingo du, eta *ad hoc* proposamena diseinatuko du, parte-hartzaile guztiekin adostu behar dena. Aldez aurretik, administrazio-ataleko parte-hartzaileen eginkizun eta zereginak, barruko eta kanpoko harremanak eta laneko dokumentazioa aztertuko dira, eta horiek izango dira ataleko hizkuntza jardueraren egitasmoaren oinarri.

5.4.1.5. Eskaera.

Bi bide aurreikusten ditugu EraMi bat ezartzeko:

- administrazio-atal batek, ataleko buruaren bidez eta saileko zuzendaritzaren oniritziarekin, bere nahia adieraztea Hizkuntz Normalizazio Atalari.
- Hizkuntz Normalizazio Atalak, zenbait baldintza eta ezaugarri aztertu ondoren, egoera egokia dela ikusirik, atalari proposamena aurkeztea. Bigarren honetan, beharrezkoa da, proposamena jaso eta aztertu ondoren, atalak onartzea: ataleko kide guztien borondatea eta adostasuna izango da oinarria EraMi bat ezartzeko.

5.4.2. Administrazio-ataleko modulua

5.4.2.1. Xedea

Langileei berez dituzten eginkizun eta zereginak euskaraz garatu ahal izateko hizkuntza-ezagutza nahikoa ematea da modulu honen xedea.

Aldi berean, hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta, baldintza egokiak sortu nahi dira, administrazio unitate elebidunetan euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin.

5.4.2.2. Norentzat

Parte hartu ahal izango dute EraMia antolatzeko **baldintzak** betetzen ez dituzten langileek, betiere atal edo zerbitzu bereko langileak badira.

5.4.2.3. Baldintzak

- Atal edo zerbitzu bereko langileen %50ek edo gehiagok parte hartzea. Egoera bereziak daudenean, hala nola lantokiari edo zerbitzu bereko atalek egindako lanari lotutakoak, kasuan kasuko zerbitzuburuak txostena egin ondoren erabakiko da.
- Euskararen erabilera sustatzeko borondatea adieraztea.
- 2. HE edo goragokoa egiaztatuta izatea.
- Planaren arautegia onartzea eta adostutako helburuak betetzeko zein plana bukatu arte jarraitzeko konpromisoa hartzea.

5.4.2.4. Helburuak

Aurreko baldintzak betez gero eta arautegia onartzen bada, Hizkuntz Normalizazio Atalak *ad hoc* plana egingo du, parte-hartzaileekin adostuta. Aldez aurretik, administrazio unitateko parte-hartzaileen zeregin eta eginkizunak aztertuko dira, baita laneko dokumentazioa ere. Hain zuzen ere, horiek izango dira administrazio unitateko hizkuntza jardueraren egitasmoaren oinarri.

5.4.3.6. Eskabidea

Moduluan parte hartu nahi duten langileek beren atal edo zerbitzuko buruari eskatu beharko diote, eta horrek posta elektronikoa igorriko du Hizkuntz Normalizaziora, eskaera egiteko epea bukatu baino lehen, informazio honekin:

- Zerbitzu edo atalaren izena.
- Zerbitzu edo atalari buruzko informazioa (langile kopurua).
- Parte hartu nahi duen langile kopurua.

- Parte hartu nahi duten langileei buruzko informazioa (lanpostua, lan egoera, egiaztatutako HE).

5.4.3. Euskararen erabilera sustatzeko modulu presentziala

5.4.3.1. Xedea

Langileei, berez dituzten eginkizun eta zereginak hizkuntza ofizial bietako edozeinetan, batean zein bestean, garatu ahal izateko hizkuntza-gaitasuna berreskuratzen, mantentzen eta hobetzen laguntzea da modulu honen xedea.

5.4.3.2. Norentzat

Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten duten langileentzat. Aldi baterako kontratatutako langileek parte hartu ahal izango dute modulu honetako jardueretan, baldin eta Aldundiarekin duten lan-harremana ikasturte guztira luzatzen bada.

5.4.1.1.3. Baldintzak

2. HE egiaztaturik edukitzea edo 2. HE horren pareko ahozko euskara-maila erakustea.

Antolatutako jardueretara modu jarraituan joatea, salbu eta justifikatutako arrazoiren bat dagoenean.

5.4.4. On Line modulua

5.4.4.1. Administrazio-hizkera 1.0 (On Line euskaraz)

5.4.4.1.1. Xedea:

- Administrazio-ko langileak sentsibilizatzea administrazio hizkeran aldaketa egin beharraz, hizkera hori ulergarriagoa izan dadin.
- Administrazio-ko langileei laguntza ematea administrazio idazkiak argi, zehatz eta zuzen idatz ditzaten.

5.4.4.1.2. Hartzaileak:

- A1, A2, C1, C2 taldeak eta langile-taldeak, betiere 2. HE egiaztatu badute.

5.4.4.1.3. Egitaraua:

- Administrazio-hizkeraren ezaugarriak
- Bilera-deia

- Iragarkia
- Eskabidea
- Ziurtagiria

5.4.2.1.4. Iraupena, ordutegia eta irakasleak:

On Line ikastaroak bi zati ditu:

- Lehenengo zatian, zenbait gai azaltzen dira programa informatiko baten bidez. Iraupena gutxi gorabehera 40 ordukoa da, eta ordutegia, 13:30etik biharamuneko 07:30era. Irakasleak BFAko Hizkuntz Normalizazioko trebatzaileak dira.
ADMINISTRAZIO-HIZKERA 1.0 (ON LINE EUSKERAZ) ikastaroa amaitu ondoren, azterketa bat egin behar da. Programaren %80 egin eta azterketa gainditzen dutenek HAEEn ziurtagiria lortuko dute.
- On Line ikastaroaren bigarren zatian, langileek hizkuntza-prestakuntza lanpostuan bertan jarraitzeko aukera izango dute. Azterketa gainditzen duten guztiek edo On Line programa osatu bai baina azterketa gainditzen ez dutenek hizkuntza-prestakuntza lanpostuan bertan eta lanorduen barruan jarraitzeko aukera izango dute, trebatzaile baten laguntzaz. Prestakuntza honetarako, langileek ataleko edo zerbitzuko buruaren baimena izan behar dute.

5.4.4.2. Administrazio-hizkera 2.0 (On Line euskaraz)

5.4.4.2.1. Xedea:

- Administrazioko langileak sentsibilizatzea administrazio hizkeran aldaketa egin beharraz, hizkera hori ulergarriagoa izan dadin.
- Administrazioko langileei laguntza ematea administrazio idazkiak argi, zehatz eta zuzen idatz ditzaten.

5.4.4.2.2. Hartzaileak:

- A1, A2, C1, C2 taldeak eta langile-taldeak, betiere 3. HE egiaztaturik badute eta ADMINISTRAZIO HIZKERA 1.0 (ON LINE EUSKARAZ) ikastaroa gainditu badute.

5.4.4.2.3. Egitaraua:

- Sarrera
- Bilera-akta
- Gutuna
- Ofizioa
- Txostena

5.4.4.2.4. Iraupena, ordutegia eta irakasleak:

Ikastaroaren iraupena 40 ordukoa izango da, eta ordutegia 13.30etik biharamuneko 07:30era. Irakasleak BFAko Hizkuntz Normalizazioko trebatzaileak izango dira.

ADMINISTRAZIO-HIZKERA 2.0 (ON LINE EUSKARAZ) ikastaroa amaitu ondoren, parte-hartzaileek azterketa bat egin beharko dute, eta hori gainditu ondoren, hizkuntza-prestakuntza jarraitzeko aukera izango dute lanpostuan bertan eta lanorduen barruan, betiere, ataleko edo zerbitzuko buruaren baimena badute.

5.4.3. Administrazio-ataleko modulua

5.4.3.1. Xedea

Lehenengo ikastaroak bezala, ikastaro honek bi zati ditu:

- Programa informatiko baten bidez 40 orduko prestakuntza egingo da, eta ordutegia 13:30etik biharamuneko 07:30era izango da. Irakasleak BFAko Hizkuntz Normalizazioko trebatzaileak izango dira. ADMINISTRAZIO-HIZKERA 2.0 (ON LINE EUSKARAZ) ikastaroa amaitu ondoren, azterketa bat egin behar da. Programaren %80 egin eta azterketa gainditzen dutenek HAEEn ziurtagiria lortuko dute.
- On Line ikastaroaren bigarren zatian, langileek hizkuntza-prestakuntza lanpostuan bertan jarraitzeko aukera izango dute. Azterketa gainditzen duten guztiek edo On Line programa osatu bai baina azterketa gainditzen ez dutenek hizkuntza-prestakuntza lanpostuan bertan eta lanorduen barruan jarraitzeko aukera izango dute, trebatzaile baten laguntzaz. Prestakuntza honetarako, langileek ataleko edo zerbitzuko buruaren baimena izan behar dute.

ⁱ Egoera soziolinguistikoa:

- Aldundiko langile gehienen ama-hizkuntza gaztelania da.
- Langile gehienen harreman-hizkuntza gaztelania da.
- Lan esparruan gaztelania erabiltzeko joera dago, baita euskaldunen artean ere.
- Euskara ikasi duten langile gehienek gaztelania erabiltzen dute harreman-hizkuntza moduan.
- Lan-esparruan euskara erabiltzeko prest dauden langile euskaldunek ez dituzte talde trinkoak osatzen; gaztelaniaz hitz egiten duten langileen artean sakabanatuta daude.

ⁱⁱ Lidergoa:

- Administrazio-unitateetako arduradunen eta arduradun politikoen lidergorik eza, ez baitute euskara erabiltzen harreman- eta lan-hizkuntza moduan eta ez baitiete langileei eskatzen euskara erabiltzeko.

ⁱⁱⁱ Erabiltzaileek ez eskatzea. Horren ondorioz, ikastaroan landutako ahozko eta idatzizko dokumentazioaren erabilera praktikoa urria da.